

KRISTO ITZULI DA, BERE EGIA DAKAR

2. GUTUNA

(Gutun hau meditatu, eta aztertu egin behar da irakurri baino gehiago)

Ni, **Kristo** Naiz.

ZERUKO KONTZIENTZIA SORTZAILEAREN esfera gorenetatik ari naizen bitartean, nire eraginak zure mundua inguratzen du.

Metafora bat erabiliz; kontzientzian, zure eguzkitik lurrera dagoen aldea bezain urrun nago ni zure mundutik. Hala ere, zintzoki hots egiten badidazu, behar bezain hurbil egongo naiz zuri laguntzeko.

Pertsona askok ezin izango dituzte **GUTUN** hauek jaso, ez baitaude horretarako prestatuta oraindik.

GUTUNAK itzaltzen saiatuko diren pertsonak ez dira faltako; zeren gutunak irakaspenek mehatxua ekarriko baitute pertsona horien sostenguarentzat edo erlijioarentzat. Ez dute arrakastarik izango, oposizioak indartu egingo baititu **GUTUN** hauek.

Batzuek **GUTUN** hauek pozarren onartuko dituzte, zeren beren arimetan jakingo baitute –munduko erlijio guztietatik haratago existentziaren **EGIA – ERREALITATEA** dagoela. Horiexek dira aurrera egingo duten pertsonak, azken batean, mundua bere suntsipenetik salbatuko dutenak.

Nire autobiografiarekin segituko dut, aurreko **GUTUNEAN** utzi nuenetik aurrera.

Bizitza publikoan maisu eta sendatzaile hasi nintzeneko xehetasun biografiko batzuk eman nahi izan dizkizut, nire gazte-jarrerari eta jokabideei arreta jar diezaiezun; hau da, neure gizatasun espirituala lortzean izan nituen inguruabarrei.

Garrantzitsua da, ni lurrean izan nintzenean Palestina nolako zen zuk ikusi ahal izatea; eta argi eta garbi ikustea juduen sineskerak eta erritu tradizionalak doktrinatuak jendeari zer-nolako barne-gatazkak eragin zizkioten nire irakaspenek.

Gatazka horiek zirela medio, ebanjelistak ez ziren gai izan, irakatsi nahi nien guztia zehatz-mehatz islatzeko.

Ebanjelioetan badira nire parablei buruzko anitz aipamen, zeruetako Erresuma edo Jainkoaren Erresuma deskribatzen dutenak. Hain zuzen ere, Jainkoaren Erresuma izan zen ebanjelistek erabili zuten terminoa; hala ere, **hitzetan beraietan sakontzeko saiorik ez da inoiz egon, ezta esaldi eginak aztertzeko ere, edo Jainkoaren Erresuma edo Zeruko Erresumaren esanahi espirituala ateratzeko.**

Herriari emandako benetako sermoiez hitz egiten dizudan bitartean, basamortuko nire esperientzien argitasunarekin eta gertakari zientifikoei buruz duzun ezagutzarekin, garai hartan irakasten saiatu nintzenetik zerbait ulertu ahal izango duzu azkenean.

Neurri handi batez, arrakastarik izan ez nuenez, ezinbestekoa da beste saio bat egitea garai honen hasieran (milurtekoan); **zeren nire goreneko ezagutza espirituala, pribilegiatua eta iluminatua izango baita hurrengo aroa eraikitzeko eta garatzeko oinarria.**

Nahitaezkoa zen -eta da-, ni bezalako Maisu bat, eta, guztiz sentiberak eta -mentalki eta emozionalki-zeharo konprometituak izan diren beste batzuk, Existentiaren Egiaren bila ibiltzea. Gero, lurrera etortzea **HITZETAN EZARTZERA**, hitzetan preso dagoen lurreko jendeari deskribatzeko zer aurki dezakeen **UNIBERTSOKO DIMENTSIO SORTZAILEAN** definitu gabeko egoera batean.

Aipatu Maisu inspiratuengatik izan ez balitz, lurreko jendeak bertatik haratago dagoen guztiaren berri ez zukeen izango - **eta kontaktua egiteko aukerarik gabe geratuko zen, pertsonalki espermentatua eta bereganatua izateko aukerarik gabe, eta etorkizuneko giza eboluzioa sustatzeko ere aukerarik izan gabe.**

Eta ez hori bakarrik –Biblia munduko libururik irakurriena omen da. Oraingo moduan bere helburuak betetzeko balio izan du.

Testamentu Berria, dagoen bezala, interpretazio oker fardelarekin, oztopo da bilakaera espiritualerako.

Bada ordua pertzepzio eta ulermen mistikoaren maila berrirantz aurreratzeko.

Berriz ere munduari hitz egiteko giza gorputz batean jaistea ezinezkoa zaidalako, eta beste dimentsio batzuetan ere ministratzen dudalako, arima sentibera bat entrenatu dut jasotzeko eta igortzeko. Hori, egin dezakedan onena da zuzenean zurekin hitz egiteko. Espero dut zuk jaso eta onartu ahal izatea.

Okerrekoa den oro ezabatu egiten da –ziur egon zaitezke horretaz.

Hurrengo orrietan kontatutako gorabehera eta sendaketek ez dute garrantzirik. Gertatu, gertatu ziren, baina soilik kontatzen dira beren esanahi espirituala ulertzeko modua izan dezazun.

Zuk irakurri bitartean zera nahi dut nik: Orain dela 2000 urteko giza egoera eta gaurko zure bizimodua eta garaia erlazioa ditzazun.

Lurrean Zeruko Erresumako kide bihurtzeko prest dagoen gizaki orok azkenean lor dezakeen guztiaren ikonotzat ‘Jesus’ pertsona har dezazun nahi dut.

Nahiz eta gaurko munduko jendea ustez sofistikatua eta egozentrikoa izan ‘ezagutza eta irakaspen’ modernoetan, jokamolde garaikideetan adituak, eta bata bestearekin erlazioatzeko modu berriak izan arren; oinarrian aspaldiko jende hura zuek bezalako zen.

Ondorengo BULKADA BIKIEK erabat kontrolatuak eta motibatuak zeuden:

Atxikidura	-	Arbuioa
Nahiak	-	Aldarapenak

Zuek bezalaxe

Maitatu, gorrotatu, kondenatu, kalumniatu, eta esamesaka jardun zuten, gizartearen gailurrera igotzeko goranahiak izan zituzten, bizitzan porrot egindakoak mespretxatu egin zituzten; isilpean promiskuoak ziren, eta edozein modutan ezberdinak zirenei iseka egiten zieten.

Nik zuri, lur gainean izandako garai hartan sar zaitezzen eta uler dezazun laguntzeko, nire kontzientzia zure lur-existentziaren mailara jaitsi dela esan behar dizut; berriz ‘Jesus’ pertsona espermentatzeko, eta inguratu ninduten emozioak eta gertakariak bizitzeko.

Basamortua abandonatu eta Nazaretera, nire herrira, joateko bidea hartu nuenean, oraindik ere irrikitan nengoen basamortuan jakinarazitako hain ezagutza aintzatsuagatik.

Nik, ikasitako guztian erabat jarri nituen pentsamenduak; eta pentsamenduok aurreko nire pentsamolde negatiboetan galtzen baziren, agudo – agudo ‘**Aitagana**’ jotzen nuen berriz, gaintzeko inspirazioa eta erabakitasuna lortzeko asmoz. Horrelaxe jokatu nuen nik, etengabe itzultzen bainintzen **ezagutzaren eta ulerkuntzaren Argi aldera**.

Pertsona batzuek mesfidantzaz begiratu zidaten, nire alaitasuna eta itxura zikin eta nabarmena ikustean. ‘Mozkortuta al dago?’ galdetu zioten euren buruari. Beste batzuek gorrotoz begiratu zidaten. Iraganean bezala erreakionatu beharrean, gogoratu nuen ikuspenekin eta ezagutzarekin bedeinkatua izan nintzela; hots, pertsona horiek igarri ere ezin zutenarekin. Bedeinkatu egin nituen, beren barne-ikusmena ere antzera zabaltzeko eskatu nuen, eta etxe aldera jarraitu nuen bakean.

Baziren herritarrak ordea, nire itxura tamalgarria gupidaz ikusi zutenak; eta bidean jarraitzen laguntzeko etxean presaka sartu ziren ogia -eta baita ardoa ere- emateko. Beti egoten zen norbait gauez babesa eskaintzen zidana. ‘**Aita Biziak**’ benetan nire behar guztiak arindu zituen, eta babesa eman zidan une egokian.

Denbora horretan zehar ez nuen tutik ere esan basamortuan emandako asteen inguruan. Oraindik momentua ez zela sentitu nuen. Azkenik, Nazaretera, ene herrira iritsi nintzenean herritarrak iseka hasi ziren, itxura nazkagarria neukala eta piltzar zikinekin jantzita nengoela adieraziz.

‘Zikina, alferra!’ bota zizkidaten hitzik goxoenetako batzuk izan ziren.

Amaren atera heldu nintzen ikara sentimendu handiz; banekien—eta herritarrak baino eskandalizatuago geratuko zela aurrez aurre ni ikustean: argal, hezurak larrua zeharkatzen, begi-zulo handituak, masailetan zuloak, aurpegi errea eta beltza, ezpainenetan eguzkiak sortutako basastoak, txukundu gabeko bizar luzeak. Arropa! Sutan jarriko zen arropa ikustean, -berezko kolorea ikusezina basamortuko hautsagatik, eta ehuna puskatua eta urratua.

Eskailera mailak igo nituen eta nire amaren sumindura jasateko prestatu nintzen. Atea jo nuenean arreba etorri zen ate ondora. Aho zabalik begiratu zidan ikaturik, eta begiak zabal zabalik; eta gero atea - danba!- itxi zuen nire parean. Korrika joaten entzun nuen etxearen atzeko aldera, oihukatuz:

- Ama, etorri agudo, atean gizon zahar eta zikin bat dago.

Nire ama entzun nuen marmarka atera etortzean. Kolpe batez ireki eta geldi-geldirik geratu zen. Une batez soilik irribarre egin nuen, gero goitik behera izututa begiratu zidanean konturatu zen izugarritzko itxura zuen gizon hura, benetan, Jesus bere seme bihurria zela.

Eskua luzatu nion esanez:

- Badakit pena handia ematen dizudala, baina lagunduko al didazu?

Berehala aldatu zitzaion aurpegiara eta ni barrurantz bultzatu ondoren, atea ondo itxi zuen.

-Agudo –esan zion nire arreba ikaturari.

-Utzi zarata hori eta ipini ura irakiten. Hire neba (anaia) goseak jota zagon. Ez din axolarik zein saltsatan sartu den, geurea dun, eta zaindu egin behar dinagu.

Astiro, arropa erantzten lagundu zidan, eta ur-ontzi handi batera makurrarazi ondoren, garbi-garbi utzi arte igurtzi ninduen. Gero, ilea eta bizarra moztu zizkidan, eta leunkiro olio estali zizkidan gorputzeko zauriak eta ezpainak. Biotako inork ez genuen isiltasuna urratu.

Eman zidan maitasuna dastatu nuen eta eskerrona erakusten saiatu nintzen jokabide leunago eta sentiberagoarekin. Tunika garbia jantzi ondoren, fruitu eta elikagaiak, esnea, ogia eta ezta eman zidan jateko.

Gogoz kontra eman zidan ardoa indarberritzeko, baina argi zegoen uste zuela hori nire larritasunaren kausa zela.

Gero ohera bidali ninduen eta estali ninduen. Zenbait orduz lo egin nuen eta eraberriturik esnatu nintzen leihotik zerua oskarbi ikusten zen goiz batez.

Amarekin hitz egin nahi nuen, ni benetan Mesias nintzela kontatzeko, baina ez juduek uste zuten modukoa. Jendea salbatu ahal nuen bere “bekatuen” ondorio txarretatik. Banuen gaitasuna beraiei osasuna, ugaritasuna eta beharren asetasa eskuratzen laguntzeko, mundua zehazki nola sortu zen irakatsi ahal nielako.

Azaldu ahala, amets egiten eta lilurutzen hasi zen. Jauzi batez zutitu eta bizkor irten nahi izan zuen auzokoei bere semea benetan Mesias zela kontatzera – entzun behar zuten zein modutan hitz egiten zuen – eta basamortuan barau egin zuela.

Baina ez nion utzi. Esan nion oraindik ez niola azaldu jakinarazi zitzaidana. Ikasi nuen gauza inportanteetako bat zera zen: Jainko mendekari baten sinesmenean guztiz erratuta zeudela Judu Ortodoxoak. Ez zegoen horrelakorik. Horrek ama beldurrarazi zuen, eta zera oihukatu zuen:

-Orduan, Jehovak gu onak egin gaitzan eta profetei entzun diezaiegun nola gobernatuko du mundua zigortzen ez bagaitu? Honezkero hain inportantea al haiz Apaiz Buruei irakatsi ahal izateko Moisesen garaitik igorritako kontuak eramaten? Lotsa handiagoa ekarriko al duk etxe honetara?

Negarrari eman zion haserre esanez:

-Ez haiz ezertan aldatu, soilik esaten duana aldatu duk. Atsekabea baino ez didak ekarri. Nola sinets nezakeen Mesias hintzenik. Gure herriari inoiz baino oinaze handiagoa besterik ez diok ekarriko ideia arraro horiekin.

Anaia-arrebek amaren negarra entzun zutenean lasterka etorri ziren, etxetik bota nahi ninduten. Bakean alde egiteko aukera eskaini nien, zalaparta gehiago nahi ez nuelako. Amak horrela erreakzionatu bazuen, ziur egon nintekeen beste guztiek ere modu berean erreakzionatuko zutela kontatu nahi nienaren aurrean. Lasaitasuna, erabateko atsedena eta isiltasuna behar nuela ulertu nuen nire esperientziak eta pentsamenduak ordenatzeko. Otoitz egin beharko nuen orientabide inspiratua eskatuz, ‘Berri Onak’ mezuarekin juduengana nola hurbildu jakiteko. Ziur nengoen ‘**Aita Biziak**’ nire beharra **aseko zuela**, eta nonbait ostatu egokia aurkituko zidala. Nire ama, ustez nituen ideia harroengatik sutan egon arren, oso nahigabetuta zegoen, nire egoera makalagatik sentitzen zituen maitasun eta gupida sentimenduekin. Itxuraz irudikatzen nuen guztia arbuizatzen zuen berak: -asaldatzea, Judu Erlijioarekiko gutxiespena, agintearrekiko jokabide harroputzak, nire setakeria eta harrokeriak; baina oraindik maite ninduen eta zeharo kezkatuta zegoen, azkenean sekula gertatzerik uste ez zuen istilu handitan sartuta egongo nintzelako. Berak anaia-arrebei errieta egin zien eztabaida zaratatsuak eteteko esanez eta niri begiratu zidan:

- Hemen gera haiteke hobeto egon arte –esan zidan.

- Beharbada, hemen haizen bitartean, zentzutasunez konbentzitu ahal izango haut. Orain nirekin egin duan bezala hitz egitera joaten bahaiz kalez kale, sekula baino okerrago bukatuko duala esan behar diat.

Jende onak txiza eta zabor ustela botako dik. Zoritxarra haiz gero, familiarentzat!

Beraz, bere errieta jaso arren, barre egin nuen; eskerrak eman nizkion eta musu bero bat eman nion. Pozik geratu nintzen berarekin; banekien ama haserre egoteaz gain nitaz oso kezkatuta zegoela. Ongi elikatu ninduen eta arropa ona eta berria egin zidan. Nire itxura hobetzeko egin zuen guztia eskertu nion, ondo bainekien aberats eta txiroen artean libre eta lasai ibiltzeko, egoki jantzi behar nuela, arropa onarekin.

Batzuetan janaria eskas egoten zen etxean. nire ‘**Aitaren**’ ahalmenaz baliatuz berriz ezartzen nuen ezer esan gabe. Berak ere ez zuen ezer esaten, Nik banekien bere buruari goibel-goibel galdetzen ziola ea lapurtzearena ere gehitu behar ote zitzaien nire ohitura txarrei. Gero eskuetan, labean egindako ogi batekin harrapatu ninduen; eta bazekien ez nintzela kanpoan erosten izan, eta egun hartan ez zela labea erabili. Ez zidan deus erran, baina gogoetazko soa bota zidan. Bere jokabidea aldatzen ikusi nuen une horretantxe. Horrezkero ez zegoen seguru bere alorrean. Nireganako zituen jokabideak zalantzan jartzen hasi zen, eta baita neuk esaten nuelako egia ere.

- Zer gertatu ote zitzaion han basamortuan, benetan? Nola egin lezake ogia surik, irinik, eta legamiarik gabe? Zer esan nahi du? Mesias al da?

Gero nire anaiak eskuan ebakia egin zuen. Min handia zuen usteldu zitzaionean. Zauri gainean eskuak ezartzen eta lasai otoitz egiten utzi zidan. Anaiak, ‘**Ahalmena**’ bere eskuaren barrenean nola zebilen sentitzen zuela ikusi nuen, harrituta begiratu zidalako.

- Minak alde egin zidak –esan zuen labur. Umore txarrez zegoen joan zenean; eta nik banekien, minaren arindura nabaritu arren, ez zitzaiola batere gustatu lagundu ahal izana. Bekaitza zidala nabaritu nuen. Nire arrebak eskua erre zuen eta beste anaia bat maiz buruko min handiz kexatzen zen. Biak sendatzeko gai izan nintzen.

Nire ‘ahalmen magikoak’ zirela eta, anaia-arrebak txantxetan hasi ziren. Niri haserre eraginez gero, zein kalte egin ote niezaiekeen galdetzen zuten. Tirabira sakonagoa egin zen etxean, familiarentzako bakea irrikatzen zuen gure amarentzat.

Baina aldaketak ikusi zituen nire jokabidean, eta horrek bareagotu egin zuen. Ni lasaiagoa nintzen, suminaldi posible batzuk argi eta garbi kontrolatu nituen, neure energia bideratu egin nuen, ezinegonari eutsi egin nion, ez nuen eztabaidatzen. Amaz gehiago arduratu nintzen, bere emakume-kexei entzunez, haltzari hondatuak konpontzen lagundu nion etxean. Muinoetatik urrutiko etxaldeetaraino ibili nintzen behar zituen fruitu eta landareen bila. Samurtasunez eta gupidaz maitatzeraino heldu nintzen, ama bat maitatua izan behar den bezala.

Egun batean zera galdetzera ausartu zen:

- Jehova mitoa denik sinesten al duk oraindik?

- Jobek esan zuen, baldin eta Jehovak bere hatsa erretiratuko balu haragi oro behera eroriko litzatekeela. **Horixe da sinetsi eta ikusi nuen Jehova.**

- Inork ez dik Jehova ikusi – esan zuen tinko.

- **Nik ikusi nuen, gauza guztiek izatea eduki zezaten egin zuen HURA**, erantzun nuen lasai. ‘**Aita**’ deitzen diot **MAITASUN PERFEKTUA** delako, ama batena baino **MAITASUN** perfektuagoa – erantsi nuen irribarrez.

- **BERA BERE** kreazioaren barruan, kreazioan zehar eta kreazio osoarentzat aritzen da. ‘**Aita**’ da, -nire

baitan dena- etxean behar zenituen gauzak ekarri dizkizuna; eta nire anaia arrebak hain bizkor sendatu zituen.

Nioena pixka bat ulertzen hasi zela ikusi nuen.

- Eta bekatua zer – galdetu zidan.

- Ez dago bekatuik guk ulertzen dugun bezala.

Izaten dugun jokabidea izateko jaiotzen gara. Gure giza pentsamenduak eta sentimenduak gainditzeko modua bilatu behar dugu, Aitaren babesetik aldentzen gaituztelako eta gaixotasunak eta miseria ekartzen dizkigutelako. 'Nia' (egoa) nola gainditzen den ikasten dugunean Zeruko Erresuman sartuko gara.

Ama isil-isilik joan zen esan niona sakonki hausnartzera, baina jada ez zegoen haserre. Banekien nire baieztapenak hausnartzen ari zela, eta konturatu nintzen bere mundu segurua eta ezaguna hankaz gora jartzen ari zela.

Gizakia diziplinatugabea izanez gero, neurrigabeko mendekuarekin mehatxatzen zuen Jehova batengan sinetsi gabe, ama galduta eta ez-segurua sentituko zen. Bere buruari galdetuko zion mundua nola konponduko zen gizakiek soilik kontrolatu behar bazituzten beren gaiztakeriak eta gainerakoak. Erregeak eta agintariak ere gaiztoak ziren beren ekintzetan. Bekatariei agintzeko eta zigorra ezartzeko, nora joango ginateke Jehova gabe?

Indarberitzen nintzen bitartean, Eskriturak arretaz irakurri nituen, eskriba eta fariseuekin konfiantzaz topatu ahal izateko. Behar beharrezkoa ere zen Mesias ez zer idatzi zen jakitea, guztiz jabetuta bainengoen profetek nitaz idatzi zutela. Benetan, banuen gaitasuna jendea miseriatik, gaixotasunetik eta txirotasunetik erreskatatzeko—salbatzeko-, baita osasuna eta oparotasuna berreskuratzeko ere, Zeruko Erresumari eta '**Aitaren Errealitateari** buruzko egia irakatsiz.

Irakastera eta sendatzera irteteko nahikoa prestatuta sentitu nintzenean, amari atsegin ematearren onartu nuen larunbat batez Nazareteko sinagogan kongregazioarekin hitz egitea. Ohitura zenez, zutik jarri nintzen eta Isaias irakurtzeko eman zidaten. Mesiasen etorreraz profetizatzen duen testua aukeratu nuen, juduak esklabotasun mota guztietatik askatuko zituenaz.

**“Jaunaren Espiritua nire gainean dago,
Jaunak olio z igurtzi nauelako;
txiroei berri ona emateko, eta
presoei amnistia aldarrikatzeko bidali nau.
Eta itsuei ikusmena berreskuratzeko,
zapalduak aske uzteko, eta
Jaunaren graziaren urtea aldarrikatzeko.”**

Gero eseri nintzen esanez: - Gaur profetia hau nigan betea ikusi duzue.

Horrek zirrara eragin zien eta gizonek zur eta lur begiratu zidaten, baina hitz egiten jarraitu nuen, '**Aitak**' - zer esan- esango zidala jakinik. Hitz jarria zalantzarik gabe etorri zitzaidan.

Basamortuko esperientziaz hitz egin nuen, eta neure ikuspegia kontatu nien, hau da, gizondu arte hazten zen haurrena, zeinak ez baitzekien denbora osoan uhal eta kate mentaletan korapilatzen zela, eta

horrela gero eta itsuago bihurtzen zela barne- iluntasun batean kartzelatuz, **Jainkoagandik urrunduz.**

Hori egitean -azaldu nuen- konkistatzaileen zapalkuntzaren arriskupean jartzen zen, eta baita esklabotasunaren, pobreziaren eta gaixotasunaren arriskupean ere.

-Jainkoa ARGIA baita -esan nuen- eta ARGIA ikusgai guztien mamia da. **Eta ARGIA, gauza guztiak egiten dituen MAITASUNA da gizakiak gozatzeko.**

-Ugaritasunaren eta Osasunaren bedeinkazio guztiak prest zeuden dohainik; Jainkoa gogamenez, bihotzez eta arimaz maitatzen zuenarentzat, eta Jainkoaren legeen arabera hertsia-hertsian bizi zenarentzat.

Bukatu nuenean isiltasun handia egin zen sinagogan. Kongregazioak zerbait arraroa eta ahaltsua esperimentatu zuela sentitu nuen, pentsamendu maila altuagora igoarazi zuena, eta ez nuen nahi izan ezerk eteterik une hartako lasaitasun haraindikoa.

Gero marmarka hasi ziren beren artean. Batak besteari galdetzen zioten nor ote nintzen ni. Batzuk konbentzituta zeuden, Jesus pertsona nintzela, zeinaren familia oso ezaguna baitzen herrixkan, baina beste batzuek ezin zuten onartu, nagusitasunez hitz egin bainuen.

Zoritarrez, aspaldiko erlijio-gizon horienganako erreakzioak berpiztu zitzaizkidala nabaritu nuen. Banekien gizon horiek mespretxatua izan nintzela lehen, beraz euren gaitzespena espero nuen. Erronkarako nituen grina eta jokabide zaharrak itzuli ziren, eta sutan jarri ziren nirekin. Neure giza erreakzioengatik hondamendia erakarri nuen. Eta ia lortu nuen.

Gazteenak, nagusiek xaxatuta, nigana oldartu ziren eta arrastaka amildegiaren gailurreraino eraman ninduten heriotzara botatzeko; baina otoitz egin nion 'Aitari' salba nitzan. Bat batean, hain aztoratuta ematen zuten ez zekitela zertan ari ziren, batzuk besteen aurka hasi ziren, eta ateratzea lortu ondoren ihes egin nuen.

Harrigarria izan zen. Bazirudien ez zirela jabetzen nire alde egiteaz.

Esperientziak erabat astinduta, amari mezu bat bidaltzea lortu nuen Nazaretetik berehala alde egingo nuela esanez, Cafarnaunera jaitsiz, Galileako itsas ondoko hiri dotorera, alegia.

Hasieran aspaldiko ezagunekin bat egitea pentsatu nuen, baina senez sentitu nuen hori ez zela zuzena izango. Beraz, bide osoan zehar eta hirian sartzean ere ostatua aurkitzeko orientabidea eta laguntza eskatu nion nire 'Aitari'. Ez neukan dirurik eta ez nuen limosnarik eskatuko. Kaletik nembilela, adin ertaineko emakume bat nigana zetorrela ikusi nuen, eta saskien zama astuna beso gainetan zekarren. Aurpegi goibela zuen. Bazirudien negar egina zuela. Asko pentsatu gabe, geldiarazi eta ostatua non topa nezakeen galdetu nion. Labur labur, normalean ohe bat eskainiko zidala esanez erantzun zidan, baina semea oso gaixorik zuela etxean. Elikagaiak eroatera joan zela gaineratu zuen 'kontsolatzaileei' jaten emateko, semea hiltzen zenerako, bere heriotzagatik negar egingo zutenak jada bilduta zeudelako.

Nire bihotza nahigabetuta sentitzen zen beragatik, baina alaitu ere egiten zen. Berehala, lagundu ahal nuen norbaitengana zuzendua izan nintzen. Nahigabea adierazi nion eta saskiak etxera eramateko eskaintza egin nion. Une batez begiratu zidan nor izan nintekeen galdetuz, baina nire itxura eta jokabideagatik gustura geratu zen. Bidean, agian, bere semeari lagundu ahal izango niola azaldu nion.

-Sendagilea al zara? –galdetu zidan.

Mediku hezkuntzarik ez nuela jaso erantzun nion, baina halere, lagundu ahal niola.

Bere etxera heltzean –handia eta harriz ondo eraikia, egoera sozial ona eta oparoa adierazten zuena--, senarraren aurrera eraman ninduen esanez:

-Gizon honek dio gure semeari lagun diezaiokeela.

Umore txarrez burua makurtu zuen ezer esan gabe. Emazteak, Miriamek, eraman ninduen esanez oso nahigabetuta eta haserre zegoela:

-Mutikoa gure seme bakarra da alaba askoren artean; eta Jainkoari leporatzen dio haurrari gaixotasuna eman izana.

Miriamek negarrari eman zion.

-Horrela mintzo bada Jainkoaren aurka, zer pena gehiago ez ote zaigu etorriko? Galdetu zidan.

-Lasai –esan nion- laster onik ikusiko duzu zure semea berriro.

Bera zalantzatan zegoen, baina mutikoa etzanda zegoen gelara eraman ninduen. Bero zen, giro itogarria, eta hizketan ari ziren kontsolatzaile tristez beteta zegoen. Amari gela husteko eskatu nion, baina bisitariak ez zuten alde egin nahi. Zer gertatuko zen ikusi nahi zuten, eta soilik gogoz kontra joan ziren, Miriamek senarrari hitz egin ziezaien eskatu zionean.

Aitarekin eztabaidatzen entzun nituen ondoko gelan. Zer uste zuen egin zezakeela gizon horrek medikua gai izan ez bazen mutikoari laguntzeko? Aita gelan sartu zen bere begiekin ikusteko.

Bere semea hildako bat baino zurbilago zegoen eta sukarrak handia zeukan. Amak azaldu zuenez, ez zuen janaria onartzen eta sabel-jarioa zeukan. Zenbait egun horrela eman ondoren, pisu dexente galdutakoa zen; eta medikuak, besterik ezin zela egin esan zuen.

Seguru asko hil egingo zen.

Eskuak haurraren buru gainean jarri eta otoitz egin nuen isilean, **bihotz-bihotzez eskerrak emanez** 'Aitaren' **Bizia** ene eskuen bidez jariatuko zelako. Banekien horrela sendatze-lana egingo zela. Bero itzela, inurridura eskuetan, eta **Ahalmena** bere gorputz ahulera isurtzen sentitu nuen. Esker onez beterik bolada bat gaineratu zitzaidan. Zein handia zen, zoragarria gero 'Aitaren' **Bizia**, **BERE** sendatze-lan naturalari ekitean!

Aita eta ama, larriturik, zer gertatuko ote zen galdetuz, begira zeuden adi-adi, bata besteari eskua emanda. Semearen kolorea, pixkanaka, zuritik gorri-bizi osasuntsuagora aldatzen ikustean, aho zabalik oihu egin zuten gozamenaz. Handik gutxira umeak so egin zidan pozik esanez:

-Eskerrik asko, ondo nago orain. Gose naiz, zerbait jan nahi dut.

Ama, haurra besarkatuz, pozaren pozez geratu zen, baina baita pixka bat arduratuta ere.

-Ene seme!, ezin diat jaten eman. Medikua haserretu egingo litzatekek.

Ura baino ez edateko esan zion eta. Irribarre egin nuen eta esan nuen: -Sendatuta dago. Ogia eta ardoa eman diezazkiokezu. Ez diote kalterik egingo.

Aita, Zedekiah, eskerrak emanez alaitasuna erakusten zuen. Bere seme maitea besarkatu ondoren, nigana etorri zen eta eskua eman zidan berotasunez, sorbaldan zaplatatxoak emanez etengabe, burua mugituz, ez zen hitz egiteko gauza, masailetan behera zerizkion malkoengatik.

Bere onera etorri saloira pasa zen eta zera esan zion jendeari:

-Nire semeak, ia hilik, biziaren gogobetetasuna eskuratu du berriz!

Hitzok esan ondoren, ugaritu ziren barreak, galderak, poza, sinesgabetasuna eta zorion emateak. Haurraren ama, harrituta, irribarrez betea geratu zen bertan.

Horren ondoren, ez nuen ostaturik eskatu beharrik izan. Zedakiahek harritutako kontsoladoreei mutikoa sendatuta zegoela esan zienean, eta gazteak berak, irribarretsu agertuz atean, berriz jaten emateko eskatu zuenean, kontsoladoreek, guztiek, inguratu eta gonbidatu ninduten euren etxeetara. Hala ere, haurraren aitarekin geratu nahiago nuen, zeren galdera asko egiteko zuela baitziostan. Neuk erantzutea espero zuen. Mahai gainean janaria eta ardoa ipini ondoren, ase arte mundu guztia gonbidatua izan zen. Zedekiah eseri eta bere aurreneko galdera egin zidan:

-Sendagile edo apaiz batek ere ezingo lukeen zerbait egin duzu zuk. Sendatzea Jainkoagandik baino ez dator. Kanpotarra izan arren, sumatzen dut Jainkoagandik etorri behar duzula.

-Bai –erantzun nuen. Eta jendea marmarrean hasi zen harrিতuta.

-Gaixotasun hori, nire semeak izan duena, zigorra al zen iraganean gaizki egin nuen zerbaitengatik? Eta nola egin nezake hain bekatu larria, Jainkoak niri seme bakarra kendu nahi izateko modukoa? Pertsona askok buruaz baietz esan zuten hitz horiek entzutean.

-Zedekiah, gehien erantzun nahiko nukeen galdera egin duzu. Jainkoak **BIZIA eta izatea** ematen digu. Ez lizueke indarrez kenduko, gizon batek beste bati altxorren bat kenduko liokeen legez, azken honekin haserretuta dagoelako. Gizona portatzen da horrela. Ez Jainkoa. Eta Jainkoa ez dago trono baten gainean eserita zeruko parte batean, erregeak euren tronuetan jendea gobernatzeko esertzen diren bezala. Hori gizakiaren jokabidea da, eta giza sineskera ez da egia. Jainkoaren era, giza gogamenak ulertu edo irudika lezakeen edozeren gainetik dago. Neuk baino ez dut ikusi **izatea eman digun Hura**; eta badakit ez dela Rabinoek erakusten duten moduko 'jainkoa'. **Bera 'Maitasun Perfektua'** dela ikusi nuen, eta horregatik '**Aitaz**' nahiago dut hitz egin; zeren izaki bizidun bakoitzaren barnean **ERAGITEN DUELA** ikusi baitut osasuna egoera onean atxikiz; giza aitak bere seme-alabak ondo elikatuta, jantzita eta familia beroan babestuta sostengatzeko lan egiten duen bezala. Munduko gauza guztien barnean 'ikusit' dut'.

-Nola da posible? –galdetu zuen zalantzatan gizon batek. Ezin da 'izaki' banako bat aldi berean toki guztietan egon.

-Baina airea toki guztietan dago, nahiz eta ikusi ez. Hala ere, badakigu, -ezbairik gabe erreal dela eta oso garrantzitsua gure existentziarako. Airerik ez balitz eta arnasarik hartzerik izango ez bagenu hil egingo ginateteke. Haizea, airearen mugimenduari esaten dioguna, ez da ikusten; baina hostoak astintzen eta hodeiak zeruan zehar mugiarazten ikusten dugu; beraz, badakigu airea inguruan eta gure gainean dugula eta indartsua dela. Eta orain galdera hauxe egingo dizuet:

-Zein da gizakiaren atalik errealena eta baliotsuena? –gorputza ala gogamena?

Batzuek gorputza zela erantzuten zuten, bestela ez luke tokirik lurtean, ezingo luke lan egin, ezin izango litzateke ikusi, ez litzateke ezaguna izango. Beste batzuek, gogamena gorputza baino garrantzitsuagoa zela uste zutelako zioten.

Eta nik zera erantzun nuen:

-Gogamena da bere atalik garrantzitsuena, zeren eta gogamenik gabe ezingo litzateke gorputza bultzatu. Ezingo litzateke edan, lo egin, mugitu, planifikatu, ezta bizi ere. Hala ere, gogamena ez da ikusten. Soilik, badakigu gogamen bat dugula, sortzen dituen pentsamenduengatik eta pentsamendu horiek jardueraren bat modulatzeko dutelako gure bizitzetan. Gogamena garunaren bidez dabilela sinesten dugu. Bai, halaxe da. Zeren eta nola sor litzake garunak -haragiak sortutakoak-, pentsamenduak, sentimenduak, ideiak eta

planak? Jada, argi eduki behar duzu horrelaxe dela, 'Aita' gauza guztietan dela. **Bera** da **gogamena**, giza gogamenaren atzetik zuzentzen duena, eta **Bere** ekintza gogoangarriak egiten ditu izaki bizi guztien barnean. Badakigu horrela dela, bere lan miragarriak dakusgizulako. Badakusagu gure seme-alaben hazkuntza. Jaten duten elikagaia miragarriro beste substantzia bihurtzen da, gero substantzia horrek elikatzen eta hazten laguntzen du. Nola gertatzen den ez dakigu, irudikatu ere ezin dugu egin. Jakingo bagenu ere, jakin gabe jarraituko genuke zerk jarri zuen abian garrantzi handiko bizi-prozesu hori, bizidun bakoitzaren gorputz barruan. Begira, zein modu miragarritan diseinatu eta sortzen diren bizidun bakoitzaren gorputzak, hain zuzen ere, jaten duten janari mota elikagai bihurtzeko, eta elikagai horrek hezurra, odola eta haragia hazteko.

-Zuk horiek guztiak erakusten dizkiguzunez, badakusagu, benetan, zoragarriak direla –oihu egin zuen gazte batek.

-Halaxe dira, bai! Gorputz gazteek garapen-aldi batzuk izaten dituzte, eta beren gogamenak garapen fisikoarekin batera joaten dira. Gero, neskak eta mutilak bikote laguna aurkitu eta guraso bihurtu nahian hasten diren arte. Horren ondoren, sorkuntzaren lan handia egingo da, eta umetokiaren barrenean giza haziaren hazkundeak jarraituko du umea guztiz garatu arte.

-Pentsa ezazue! Nork zehazten du etengabeko hazkunde hori guztia, hain metodikoa, emakumearen baitan? Nondik datoz burua, gorputza eta gorputz-adarren garapen zuzena gobernatzen duten planak, emakume batetik bestera eta espezie batetik bestera aldatzen ez direnak? Nork erabakitzen du jaiotzaren une zehatza –umea umetokitik ateratzeko baliabide fisikoak, umearentzako esne hornidura?

-Pentsatu! Ama ote da? Ez, ez da ama. Ama, bere baitan gertatzen den guztiaren lekukoa baino ez da; senarra berarekin egon denetik eta giza hazia erein duenetik, amarenarekin bat egiteko. Jainkoak urrunetik egiten ote ditu gauza horiek guztiak? Bere pentsamenduak gizon eta emakume bakoitzarengana iristen ote dira, gauza horiek noiz gertatu behar diren erabakitzeko? Ez, **Gogamenaren Ahalmen Sortzailea** eta **Bizi Adimen Amultsua** da gauza bizi ororen barnean, lan hori guztia egiten duena. Gurasoek ondorengoei ematen dieten maitasuna ikusten dugu; dela hegaztia, dela animalia edo dela gizakia. Nondik dator maitasun hori? **Gogamen Sortzailearen Ahalmenetik, -Maitasun Perfektutik** –gure barnean den 'Aitarengandik'.

Hori gertatzen da 'Aitak' landareetan, zuhaitzetan, hegaztietan, animalietan eta gizakiengan lan egiten duelako. Eta horregatik gara gaur hemen, bizirik, arnasa hartzen, jaten, lo egiten, seme-alabak izaten, zahartzen, eta hiltzen gero beste toki zoriontsuago batera pasatzeko. Hori guztia 'Aitaren' lana da, eta gure baitan ari da. Nola uka daiteke gaur gauean esan dizuedan guztiaren egia? Gaur hil zorian zegoen gazte bat ikusi duzue biziaren osotasunera itzultzen denbora laburrean. Neu ote naiz osatu duena? Ezta pentsatu ere! Nik neuk ezin dut ezer egin. **BIZIA** izan da, gauza guztietan ari den 'Aita', bere indar guztiaz etorri da gorputz gaixoa osatzera eta erabateko osasuna ekartzera. Nik **EGINGO ZUELA** sinetsi dudalako eta zalantzarik izan ez dudalako. Asetasun hasperenak egon ziren egongelan. Argi berria, interes berria eta gainera ez-titasun berri bat ikusten zen aurpegietan.

-Orduan zergatik sufritzen du gizakiak hain zoritxarki? –galdetu zuen Miriamek.

-Gizakia sortua denean, **BIZIAK** giza haziaren barruan forma hartzen duenean, **BIZIAK BERAK** gizatasuna hartzen duelako, zeinak **BIZIA** munduko beste edozein gizabanakorengandik banatzen duen,

irudi isolatu bat, inori ez elkartua, bakartia, barru- barrukoa, **BERE-BEREZKO** pertsona egiteko. **BERA**, oso indartsuak diren lur izaerako bi bulkadak eutsi eta kontrolatzen dute; alde batetik, hainbeste irrikatzen dituen gauza guztiak atxikitzeo bulkada dugu, eta bestetik, nahi ez duen guztia arbuiatzeko eta apartatzeko bulkada. Gizakiarengan dauden oinarrizko bi bulkada horiek dira bizitzan zehar egiten duen gauza bakoitzaren oinarria, eta gizakiak bere baitan dituen arazoaren arduradunak dira erabat. Nahiz eta **'AITAK'** gizakiaren barruan jardun, **BERAK** ez du gizatasunik batere **BERE** baitan.

-Beraz, 'AITAK' ez du ezer sostengatzen, ez arbuiatzen, ez kondenatzen edo gaitzesten; eta gaiztakeriarik ere ez du ikusten. Gizakiak egiten duen guztia, berak bekatu deitzen duena, mundu honetakoa baino ez da, eta mundu honetan soilik zigortzen da - zeren dakizuenez, LUR EXISTENTZIAREN LEGEA baita ereiten den guztiaren uzta jaso egiten dela ereindakoa bezala. 'AITAREN' GOGAMENETIK ETA BIZITIK ateratzen ditu gizakiak bere gogamena eta bizia, eta horregatik gizakia bera sortzailea da pentsamenduetan, sentimenduetan eta ekintzetan. Pentsatu, esan, egin eta sortzen duena itzuli egiten zaio gero modu berean. Ez dago 'AITAREN' zigorrrik, gizateriari heltzen zaion edozein zoritxar bere jokatzetik beretik datorkio guztiz.

Jendea marmarka ari zen hori benetan irakaspen berria zela esanez; hala ere, lehenago irakatsi izan zieten guztiak baino zentzu handiagoa zuen.

Ahots batzuek gehiago kontatzeko eskatu zidaten:

-Benetan diotsuet, nigan BIZI aktiboa sendabidea bezala ikusi duzue; jarraidazue eta zorientasuna aurkitzeko segi beharreko BIDEAZ entzungo duzue; nire hitzetan Existentziaren EGIA aurkituko duzue, orain arte gizaki bakar batek ere jakinarazi ez duena.

-Mesiaz esan izan da kreazioaren hasieratik ezkutuan izandako sekretuak kontatuko dituela. Benetan diotsuet sekretuok nigandik entzungo dituzuela. Adi-adi entzun eta esanahia ulertzen baduzue, eta sekretu horien egia praktikan jartzen baduzue, eta legeei tinko eusten badiezue, berrituak izango zarete eta Zeruko Erresuman sartuko zarete.

Hitz egin ondoren, jendea isil-isilik egon zen une batez, eta gero elkarrizketa hunkigarriaren oihuak eta zantzoak entzun ziren; baina Zedekiah zutik jarri zen, eta etxea baretzeko ordua zela esan zuen. Bere semeak lo egin behar zuen eta emaztea eta alabak ere oso nekatuta zeuden hainbeste negar egiteagatik. Hurrengo goizean kaira jaisteko eta jende gaixoa niri ekartzeko plana egin zen. Eta horrela nire misioari ekingo nion eta dena azkar konponduko zen ahalik eta ondoen. Sendatzen ez banuen ematen zuen ez zela interesik izango, ezta kontatu nien guztiaren onarpena ere. Sendatzeak erakutsi zuen irakatsi nahi izan nuen guztiaren egia; eta ene irakaspenek azalduko zituzten **'Aitaren'** sendatzea ekartzeko gai nintzelako arrazoiak. Hurrengo goizean esnatzean zeharo bizirik sentitu nintzen etortzekoak ziren gauza miragarrien itxaropenarekin.

Gosaldu eta gero, Zedekiahekin atera nintzen kai aldera bihotz distiratsurekin ondotik igarotzen ziren pertsona guztienganako maitasunagatik.

Berotasunez agurtu nituen, berri onak nituela esanez, berri onak nituela entzun nahi zuten guztientzat.

Kaira heltzean, lurrean hurrekin eserita, gizonak eta emakumeak aurkitu nituen nire zain. Batzuek eskuak zabaldu zituzten erregutuz. Oso gaixorik ematen zuten, batzuk lisiatuak eta beste asko zauriz beteak.

Beren egoera tamalgarriak bihotzean min eman zidan, baina orain alaitu ere alai nintekeen banekielako ez zela 'Aitaren Nahia' horrela egotea. Guztiz alderantziz!

Aita Bera zen sendatze oro, osasun oro, ongizate oro. Hori neure etxean eta aurreko gauean frogatua nuen.

Irrikitari nengoen egia miragarri hori irakasteko gai nintzelako inguratzen ninduen jendeari. Aurpegi zahar eta goibel batek arreata erakarri zidan. Zimurtua, argala eta okertua zen. Beragana jo nuen eta ondoan belauniko jarri ondoren, buru gainean ezarri nituen ene eskuak; eta berehala, 'Aitaren Ahalmenearen' jarria buruan bibratzen hasi zen -nire eskuen bidez- gorputz osoa **Biziaren Indarrarekin** astindua izan arte, gorputz-atalei energia emanaz.

Jendea, hori ikusita, harrিতuta geratu zen, eta galdetzen zuten zer egiten ari ote nintzaion, baina beste batzuek objezioak isilarazi zituzten. Pixkanaka gorputz-adarrak destolesten, luzatzen eta zuzentzen hasi ziren; haren aurpegia eraldatu egin zen, berriz indarra sentitzearen alaitasunagatik. Zutitzen lagundu nion, gero bera bakarrik zutitu zen harro harro. Alaitasunagatik hain zegoen txundituta, ezen negarrez hasi baitzen eta gero barreka, dantzan hasi zen, jendeari oihu egiten zion bitartean.

-Maite ezazue Jainkoa!- esan zuen - Maite ezazue Jainkoa!- eta bertan zeuden beste batzuek errepikatzen zuten. Denak guztiz hunkiturik zeuden ikusitakoagatik.

Nire pertsonaren inguruko jendetza pilaketa hain zen handia, ezen Zedekiahek kontrolatzeko ahaleginak eskaini baitzizkidan. Modu ordenatuan, eta pazientzia gutxiko zenbait ikuslek lagunduta, gaixoak nigana ekarri zituen, euren behar sakonen arabera artatuak izan ahal izateko.

Azkenik, nekatuta nengoelarik, nire anfitrioiak afaltzera gonbidatu ninduen etxera. Astirik ezagatik sendatzerik izan ez nituenak agurtu zituen. Hurrengo egunean itzuliko nintzela berretsi zien. Gau-jaia izan zen, -hainbeste hitz egiteko, -hainbeste ospatzeko, -hainbeste irakasteko, -hainbeste ikasteko, -eta hura guztia ... zinez 'berri ona' sentitzen zuen jendeak. Banekien askok onartua izan nintzela basamortuan ikusitakoaren egia esateagatik. Eta horrelaxe segitu nuen egun askotan. Jendea toki guztietatik etortzen zen ni ikustera. Zedekiah eta beste lagun batzuk jendea kontrolatzen lagundu zidaten nik osatu eta irakatsi ahal izateko. Jendeak pozarren entzuten zuen. Beren artean 'Aitari' buruz hitz egin zuten, eta jendea miseriara kateatzen zuten 'lotura eta kateei' buruz gehiago jakin nahi zuten.

Halako batean hain zen handia jendetza, ezen neronen laguntzaileak bilatu behar izan baintuen, nik beraiengan halako konfiantza izateko modukoak. Bazen ordua Zedekiah bere larru enpresara itzultzeko, deskuidatu samartuta baitzeukan. Muinoetara jo nuen dizipuluak nola aukeratu otoitz egitera. Aukeraketa egiteko gidatua izango nintzelako uste sendoa izan nuenean, Cafarnaunera itzuli nintzen. Indar handiko bulkada bat sentitu nuen kaira jaitsi eta gizon batzuekin hitz egiteko; hain zuzen ere, nire irakaspenak adi-adi entzuten ikusiak nituen gizonak ziren haiek. Ikusteko zegoen sareak bertan utzi eta nirekin bat egingo zuten ala ez. Baina hots egin nienean, Simon, Andres, Santiago eta Juan berehala etorri ziren, pozik nire sendatze eta irakaskuntza lanean laguntzera. Beste batzuek ere bat egin zuten nirekin lanari ekitean jende artean.

Zedekiah nire anfitrioiaren etxea utzi nuen, baina edozein momentutan itzultzeko aukera banuela garbi esan zidan.

Eta horrela, maisu eta sendatzaile nintzela, misioari ekin nion, herri eta hirietan zehar beharra zegoen

edonora joateko prest, norabide jakinik gabe. Abiatu aurretik, laguntzeko irrikan zeuden gazteak elkartu nituen. Nire irakaspenak entzungo zituzten eta harrিতta geratuko ziren esan nahi nien guztiaren aurrean. Lehendabizi, behar-beharrezkoa zen basamortuan ezagutarazi zitzaidan guztiaren mamia jakinaraztea.

Zera kontatu nien: Aldez aurretik ezin aurreikusizko bizimodua izan banuen ere, jendearenganako gupida sakona beti izan nuela, eta gupida horrek, Rabinoek aurkeztutako 'Jainkoari' bizkar ematera bultzatu ninduela. Jehova, zigortzaileari buruz arbuio osoz hitz egin nienean, zalantza eta izua ikusi nuen beren aurpegietan.

Zehazki azaldu nien, neure buruari galdetzen niola nola zen posible Jainko 'on' batez hitz egitea, haur errugabeek pairatutako hainbeste sufrimendu egonda. Hitz egin nuen bitartean pixkanaka beren aurpegiak lasaitzen ari zirela ikusi nuen. Nire lehengo zalantzak eta haserrea hitzetan ezartzen jarraitu nuen harik eta euren aurpegietan aldaketa eta onarpen adierazpenak, eta gero erabateko adostasuna ikusi arte. Jakin nuen beren zalantza eta galdera bereberak adierazi nituela; zeintzuk onartzeko adorerik inoiz izan ez zuten lehen.

Elkarrekin hitz eginez, Rabinoen irakaspenen aurka zeukaten isilpeko erresistentzian bakarrik ez zeudelako lasaitua hartu nuen.

Zera esan nien: Bizitza hondatzen ari nintzela garbiago ikusteko unea heldu zela. Aldatu nahi izan nuen, eta adore biziz nabaritu nuen Juan Bataiatzailearengana joan behar nuela; bera abiapuntua izango zen bizimodu berriari ekiteko.

Deskribatu nien zer gertatu zen nire bataioan eta sei astez basamortuan. Azaldu nien ene pentsamenduak, sineskerak, jokabideak, harrokeriak eta aurreko bihurrikeria guztiak -pixkanaka-kontzientziatik garbituak izan zirela; 'Aita' deitzen nuen 'Errealitatea' erakutsi zidaten errebelazio eta ikuste sakonetatik igaro bitartean. 'Aitaren Izaera' adierazi nien eta 'Zeruko Izaera' horretan 'Zeruko Nahia' ere barnean zela. Zera esan nien: pentsatze okerragatik eta jokabide bihurriagatik gizakia bera urruntzen zela bere barrenean 'Aitagandik'; eta soil-soilik gizakiak, lehenengo damutuz eta gero arazte mental-emozionalaren bidez aurki zezakeela itzulbidea eta 'Aitarekiko' harreman osoa. Hori guztia betez gero, **'AITAREN IZAERA' osoa liberatua izango zela pertsonaren gogamenean, bihotzean, gorputzean, ariman, eta inguru eta esperientzietan. Hori gertatzean, aipatu pertsona Zeruko Erresuman sartuko zen, zeinetan Aitak agintzen baitu, eta Zeruko Erresuma ere pertsonaren kontzientzian ezarriko zen. Orduan, bere existentziaren atzeko helburua lortuta edukiko zuen.**

Dizipuluekin ari nintzela, beren erreakzioak ikusi nituen aurpegietan islaturik. Zalantza oro desagertu zen -jada ulermen eta alaitasun pixka baten argia bazegoen. Gazteok fededun edo sinestun gartsu bihurtzen ari ziren zera oihukatuz:

-Hauek bai, berri onak!

Hala ere, nik esandakoaren lehen onarpenaren ondoren, ea esan nuen guztia egia ote zen galdetzen zuten batzuetan. Ulertu egin nuen hori. Gogamenetan hain sakon grabatutako Jehovaren irudia suntsitzeko prest egoteak ausardi handia eskatzen zuen.

Elkarrekin hitz egiten zuten zenbaitetan, batak besteari galdetzen zioten nor ote zen gizon hori, zeinari buruz halako gauza harrigarriak esaten baitziren. Eta niri jarraitzen bazidaten eta zinez Satanen mezulari

bat nintzela ondorioztatzen bazen? Orduan zer? Jehovak gogor zigortuak izango ziren.

Askok zuten galtzeko –gazte, gizon arduratsu eta langile bezala gizartean zuten maila; ospea salerosle eta artisau bezala, diru sarreraren galera, eta guztietan oztoporik handiena, euren familien haserrea eta arbuioa. Zer sari jasoko zuten?

Berri Onaren ebanjelioa zabaltzen laguntzeagatik esan nien ezin niela lur-saririk eman. Ez neukan inolako zalantzarik, joango ginen edonora joanda ere elikadura eta babes emango zigutela, eta jendeak ondo hartuko gintuela. **Egia hauxe baino ezin nien agindu: ‘Aitak’ euren beharrak ezagutzen zituela, behar horiek aseak izango zitzaizkiela eta osasuntsu mantenduko zituela. Agindu ahal nien ere, bidearen urrats bakoitzean ‘Aitagana’ joatean eta ‘Aitagan’ konfiantza izatean, lehen inoiz izan ez zirenak baino zoriontsuagoak izango zirela. Zeruko Erresuma esperimendatuko zuten, ‘niaren’ nahikeriak alde batera utzi eta besteak zerbitzatuko zituzten neurriaren arabera. Sendatzeen lekuko izango ziren; eta horiek sinesmena areagotu egingo zieten, eta bidaiaren eragozpenei aurre egiteko ausardia emango zieten.**

Eta horrela hasi ginen ‘ERRESUMAKO EBANJELIOAREN BERRI ONA’ zabaltzen.

Gazte horiek aurretik bidaltzen nituen bisitatuko genuen hirira. Sartzean, jendea elkartzeko esaten zioten, ‘Zeruko Erresumako Berri Ona’ entzuteko. Jendea harrিতa geratzen zen, eta gehiago jakin nahi izaten zuen, baina dizipuluek esaten zuten lagunak eta auzokideak ekartzeko eta ‘Jesus heldzean’ jakingo zutela, eta halaber, jende gaixoa sendatuko zela. Askok, ilusionaturik, berri ona zabaltzen laguntzeko korrika egiten zuten, eta laster elkartzeko jende mordo.

Indarkeriarekin, zigorrekin eta bekatarietarako kondenazioarekin mehatxatzen zuten aurpegi luzeko erlijio-sermoien aurka grinatsu matxinatu banintzen ere, orain neu nintzen jendearekin topo egiteko pozarren zebilena.

Nire ‘Berri Ona’ neukan partekatzeko, eguna alaitzeko, ondorenak eta atsekabeak sendatzeko eta euren bizitzak alaitasunez betetzeko.

Lehen, jende artean era egoistan eta esku hutsik mugitu banintzen ere -borondate ona eta batzuetan gutxi eskertutako limosnak edo eske-sariak onartuz-, orain aukera bizigarri ugari nekarraren, nire hitzak entzuteko eta euren bizi kalitatea hobetzeko urratsak egiteko prest zeuden guztientzat.

Zuk, orrialdeok irakurtzen ari zaren horrek, erabat ulertzea nahi dut une hartako nire jarrera, iluminatu ondorengo kontzientzia-egoera, eta herrikideei aurkeztu nien ‘Jesus’ izeneko pertsona. Hainbeste aieru egon denez gero, egia kontatuko dizut.

Hauexek ziren nire ezaugarriak: heldu aroan fisiko egokia, aurpegi luzea eta sudur kakoa, ez ohiko adimena, barre eta mimika egiteko zaletasuna; baina, gaur zuetako askok bezala, ez nituen ene lurreko talentuak zaintzen. Basamortuan sartzean esan liteke aurpegia eta manerak ‘doilortu’ samar nituela, izan beharko nituzkeenekin alderatuz gero.

Bihurtu nintzenaren aurka aztertzen eta oldartzen hasi nintzenean, ohartu nintzen ene adimenak ere erabilte okerragatik pairatu zuela; nik, etengabe, erlijioari buruzko eztabaida eta liskarretan jardun, eta errespeturik gabeko hizketa txatxua bultzatzen nuelako.

Jendeak barre egiten zuen nirekin. Nirekin maiz jarduten zuen jendearen gustukoa nintzen ni; baina, jakina, ez ninduten errespetatzen. Horregatik harritu ziren ni ezagutzen nindutenak, Nazaretoko

sinagogan hitz egin nienean. Amak osasuna berreskuratzen lagundu zidan bitartean, nik basamortuan eskuratutako ezagutza eta iluminazioaren erabiltze osoa egin nuen. Horrek bultzatu ninduen izan behar nuen gizona izatera.

Nire misioa hasi nuenean Sortzearen eta Existentziaren sekretuen ezagutza gorena zuen bakarra neu izateaz guztiz kontzientea nintzen.

Beraz, konfiantza osoz esan nezakeen:

- Neuk baino ez dut '**Aita**' ikusi.

Banekien gizakiek bihotzez sinesten zuten guztia faltsua zela –ez zen egia.

Banekien '**Aitak**' bereziki egin eta diseinatutakoa nintzela misio horretarako. Bedeinkatua izan nintzen oparo energia fisikoarekin, eta mintzatzeko eta parabola esanguratsuak sortzeko gaitasunarekin; eta inoiz ez ahazteko moduko mezu arrakastatsua adierazteko gaitasunarekin ere bai.

Horretaz gain, oso ongi ulertzen nien herrikideei berekin izandako harreman sakon eta luzeengatik, eta ezagutzen nituen euren itxaropenik handienak, eta euren beldurrik etsienak, banekien zerk eragiten zien barrea eta aberats eta ponposoen iseka eta mimika; banekien, jakin ere, zenbateko sakontasunarekin nozitzen zuten hainbeste gaztek eta helduk adorez eta isilik. Gupida sakona ezagutu eta esperimentatu nuen beldurrez bizi edo Fariseoen ahozko zigorra -pairatzen zuen- herriagatik eta Erromatarren zerga-legeen aurrean makurtzen ziren herritarrengatik. Banekien beren Judutar espiritu harroa jentil konkistatzaileek zauritua izan zela, eta ohoreak egitera behartuak izaten zirela, eskuz edo belaunez egindako ahozko agurrak, alegia; eta hala ere, ateak itxitakoan gutxietsi egiten zituztela. Banekien eta ulertzen nituen guztiz herriaren pentsamenduak eta bizitzak.

Lehenago beren pentsamenduak pentsatutakoa izan nintzen, beren erresuminak sentitutakoa, gabezia momentuetan beren larritasun mota guztiak jasandakoa, eta Erromatar gobernuaren hatzaparretan indargabe sentitua izan nintzen. Orain banekien sufrimendu horretatik ezer ez zela zinez beharrezkoa. Nik, Existentziaren Errealitatearen edo '*Jainkoaren*' *Errealitate* Unibertsalaren jabe izanik, judutar agintarien zentzugabekeria argi eta garbi nabaritu ahal nuen; zeren herriari bizimodu astuna ezartzen baitzioten, zeina guztiz okerra baitzen eta *Izatearen Egia*rekin kontradikzio osoan baitzegoen. Egoerak erabateko sumindura sortzen zidan.

Beraz, banekien Zeruko Ekintzaren tresna araztu bihurtzeko moldeatua eta zehaztua izan nintzela. -EGIAREKIKO grinak bultzatuta eta lagun hurkoarenganako gupidak eraginda. Ordutik aurrera, 'Gizonaren Semea' deitzen nintzen, zehazki banekielako zer pairatzen zuen gizateriak eguneroko bizitzan.

Areago, neure helburuak lortzeko konfiantza osoa neukan Egia jendeari ekartzean, eta horrela ni jendearen bizi-kalitatea aldatzeko tresna izateko. Horregatik, nire misioaren hasieran, egiteko asmoa nuen guztiagatik prezioa ordaindu behar izango nuela jakin arren -judutar mundua goitik behera eta barrutik kanpora iraultzea, alegia-, aurpegia emateko prest nengoen, horretatik pasatzeko prest, ezin nuen atzera egin jendea maite nuelako nire bihotzetik eta izatetik jariatzen zen '**Aitaren**' Maitasunarekin. Zeren '**Aitaren**' Maitasunaren esentzia EMATEA baita, -Bere Burua emanaz, eta begi-bistako izaki eta begi-bistako existentzia bihurtuz, eta, haziz, elikatuz, sendatuz, eta ageriko kreazio osoaren behar guztiak asez.

Banekien Aitaren salbazio oparia nintzela jendearentzat –munduarentzat-.

EZ nintzen-

Jainko haserretu batek bekatariei ezarritako zigorretik salbatzeko oparia, mende hauetan guztietan sinetsi eta irakatsi duten bezala;

-BAIZIK ETA-

jendearentzako salbazioa; hots, gaizki pentsatzeak sortzen dituen hutsegite berberak egunero errepikatzen salbatzekoa -.

Hain zuzen, gaizki pentsatzeak sortzen baititu zoritxarra, txirotasuna, gaixotasuna eta miseria.

Giza arraza bihotz bihotzez maite nuelako, irakasteko eta sendatzeko prest nengoen Judutar Apaizei aurre eginez. Gurutzean hiltzeko prest nengoen basamortuan benetan ikusi nuenagatik, bihotz bihotzez nekienagatik; eta hori eginez nire trebetasunaren azken tantaraino partekatu nahi nuen.

HAUXE DA NIRE GURUTZILKETAREN ATZEAN DAGOEN EGIA, ETA ENTZUN DUZUN GAINERAKO GUZTIA, TENPLUAN ERRETAKO ESKAINTZEN PRAKTIKA JUDUTARRAK SORTUTAKO GIZA AIERUAK BAINO EZ DIRA.

Ni Aitaren oparia nintzen gizateriarentzat, Existentziaren Legeen ezjakintasuna gaintzen laguntzeko, eta Zeruko Erresumako alaitasunera, ugaritasunera, eta osotasun perfektura zuzenduko zuen benetako Biziaren Bidezidorra aurkitzen laguntzeko.

Horiexek ziren ene gogamen eta bihotz barnean neramatzen hautemateak, desirak, asmo eta helburuak, eta pentsamenduak. Horixe zen nire kontzientzia espiritual (‘Jesusen’ irudiaren eta buruaren barnean ezkutatua) estaltzen zuen lurreko egitura mental-emozionala; eta kontzientzia espiritual hori zegoen.

Lehen aipatutako pentsamendu eta sentimendu formetan bideratutako kontzientzia espiritualak –nireak-bultzatu ninduen hiru urteko bidaiaren egitera, jendeari ekartzera bihotz bihotzez sinesten nuena, hots, jendearen pentsatzeko eta sentitzeko berezko modu itsutik berreroeste, zeren modu horrek jendearen bizitzak nahastea sortzen baitzuen. Baldin eta niri ulertzeko eman zidaten guztia jendeari erakutsi ahal bazitzaion, benetan uste nuen jendea bere aurreko erokeriaz ohartuko zela, pentsaera aldatzen ahaleginak egingo zituela, eta oina jarriko zuela Zeruetako Erresuma aldera doan Biziaren Bidezidorrean. Helburu horren alde ene bizia emateko prest nengoen.

Judu maisuek nire misioari emandako interpretazio okerra dela eta, ene benetako mezua itxuragabetua izan da, ezezagun bihurtzeraino, eta GUTUN hauen helburua da Palestinan jende aurrean benetan hitz egin nuelako egia Aro Berri honetako jendeari ekartzea.

Beraz, egun haietara itzuliz, utzidazu entzuleen artean fruitu eman zuen egun berezi batera itzultzen; nire dizipuluen gogamenetan zirrara iraunkorra sortu zuen eguna izan baitzen. Beraz, bereziki egun esanguratsua neuretzat ere.

Jendearen presiopetik libratu nintzen, muinoetara otoitz egitera eta meditatzen joateko; nire pila espiritualak berriz kargatzeko, ene baitan zen ‘**Aitarekin**’ konexio edo lotura ahaltsuagoa eta sakonagoa eginez. Lur jota nengoen lotura hori oso agudo iluntzen zelako nire kontzientziaren barnean jende artean

lanpetuta egotean.

Inguru horretan egoten nintzenean erabiltzen nuen leizera heltzean, ezkutuan zegoen lastaira atera nuen harkaitz baten azpitik, eta lo egiteko asmoz etzan nintzen. Hala ere, loguraren orde, **Zeruko Biziaren** eragina, '**Aitarena**', sumatu nuen berehala, eta nekea disolbatu egin zen, gorputza **Ahalmenaz** kargatu bitartean.

Ahalmen hori Izaki Orogen Iturri Sortzailea da.

Kontzientzian urrezko Argi baten barnerantz igoarazia izan nintzen eta Argi horren barruan gorantz nindoalarik, bat batean kolore zuri huts bihurtu zen, eta banekien kontzientzian, **Betikoa** den **Orekaren** atalasean nengoela; hots, **Unibertsalean**, giza gogamenaren ikusmolde orotik haratago den dimentsio mugagabea.

ARGIARI so egin nion, baina ez nintzen **BERARENA** eta **BERA** ere ez zegoen indarrez nire baitan, zeren hura '**Jainkoaren**' edo hutsaren dimentsioa baitzen, **Oreka Unibertsalaren** ez-forma. Baina, **BERA** nirekin komunikatu zen eta bere **MAITASUN** gorria eragin zidan. Berriro ere grabatu zuen ene baitan **BERA** zela **MAITASUNA**.

'Sortze Prozesua – Hobetzailea – Sendatzailea'

MAITASUNA

existentzia oro gobernatzen duena.

Banekien behar izango zen tokian, azkenean asetasuna izango zela, ura aintzira betetzera isurtzen den bezala.

Miseria egongo zen tokian alaitasuna egongo zen; **Unibertsalaren IZAERA** beharrean egongo zen edozeren baitan mugitzea zelako, osotasuna eta alaitasuna ekartzeko.

Banekien hazkunderik egongo ez zen tokian, hazkundera sustatzeko baldintzak sortuko zirela.

Jakin ere banekien porrot sentimendurik egongo zen tokian, jendeari eragiteko erronkak hornituko zirela arrakasta eta auto-konfiantza aldera.

Zera 'ikusitua nuen': gehiegi zamatutako jendearen bizitzetan '**Aitak**' **etengabe hasitako LAN AMULTSU hori** bazitekeela hartzaileek '**MAITASUN** oparizat' ez hartzea.

Haiek, gauza onik etorriko ez zitzaielako sineskerarekin hain hondoratuta egon zitezkeen gogogabezia eta porrot sentimenduetan, ezen ez baitzuten ezer ikusiko euren bizitzetan sineskera eta sentimenduetatik haratago. Beraz, beraiek sorturiko infernuari atxikita geratuko ziren.

Inorengatik errukia sentitzeko beharrik ez zegoen. Behar bakarra zen bihotz gupidagarria izatea, eta ezjakintasuna senda zedin **Egia** ekartzeko erabaki sendoa hartzea.

Existentzia eta lege kosmikoen ezjakintasunaren iluminazioa edo goi-argitzea zen gizaki batek beste bati eman ziezaiokeen dohainik handiena; zeren **EGIA** zera baitzen eta baita:

Unibertsalaren barnean besarkatuta dago arima bakoitza; eta, arimen bizitzetan '**Aitak**' bere **JARDUN AMULTSUAREN** bidez duen eragin maila, gizakiak duen errezeptibitate edo harmenaren menpe dago erabat.

Nik jakin berri nuena, jendeak premia handiz aditu behar zuena zela ulertu nuen. **MAITASUNAREN**

helburua, asmoa, eta ahalmena ikusi eta erabat ulertu beharra zeukaten; **MAITASUNA** jendearen izaeraren substantzia bera baitzen. Sinesmen ezagatik bazitekeen jendeak 'Aitaren' **JARDUN AMULTSUA** alde batera uztea, 'penak eragiten zituzten erronkak' izango balira bezala, eta horrela amore emateko porrotaren aurrean betiko.

Orduan, zera ikusi nuen askoz argiago: ni bidalia izan nintzela jendea esna eta jabe zedin auto-garapen, oparotasun, alaitasun eta zoriontasun aukera guztiez; baina jendearen esku zegoen iratzartzea eta eskaintzen zitzaionaz baliatzea.

Gogoan dut inspirazio horrek gau osoan iraun zuela, eta goizean inoiz ez bezala, **bizi bizi sentitzen nintzelarik jaiki nintzela**. Mezua argitua neukan, 'Aitaren' **Errealitatea** are argiago ikusia nuen, eta banekien egun hartan jendaurrera irten nintekeela, niri irakatsitakoaren ahalmena eta bizia transmititzera. Leizetik jaistean, amildegi karrakatu baten ondoan zegoen harkaitz handi batera iritsi nintzen. Eseri nintzenez egun hartan bisitatuko genuen hiriarri so egin ahal izan nion gainetik.

'Hobekuntza Prozesu' hura, -'Aitak' Osorik egiten duen Bulkada hori - nire bitartez sortzen sentitzen nuen, eta gainerakoekin partekatu nahi nuen, eguneroko arazoek itoarazi eta ene giza kontzientziaren baitan **Haren** ahalmena eta bultzada galdu baino lehen.

Pixka bat geroago, **nire dizipuluak nirekin elkartu ziren**. Hirian sartzean jendearekin hitz egin zuten eta joango zen jendetza bideratu zuten esanez etxeetatik haratago zegoen toki aldapatsu batera abiatzeko; zutik, harkaitz handiaren gainean haien erdian, hitz egiten hasi nintzen.

Grina eta alaitasuna -desira, irrika, eta uste sendoa-, ahoskatu nituen hitzetan berez adierazi zirela konturatu nintzen.

- Biziki egurtuta eta nekatuta zaudete. Zuen eginbeharrek gehiago itotzen zaituztete, adinez nagusi egitean zuen urdailak maiz hutsik daude, zuen jantziak urraturik, besteek haserrarazten zaituztete eta zuen zoritxarrek eta espirituaren atsekabeak bukaerarik ez dutela nabaritzen duzue.

- Baina hori ez da zuen existentziari dagokion egia. Zuen bizitzaren asmoa oso bestelakoa zen. Zuen sentimenduetatik haratago ikusterik bazenute -zuen baitan den 'Aitarekin' kontaktatzeko, gogamenak igotzerik bazenute behintzat-, -'ikusi' eta **jakin** ahal izango zenukete zuen existentziaren egoera zer izan beharko litzatekeen. Zuek, ugaritasuna, babesa, osasun ona, eta zoriontasuna gozatzeko sortuak zaretela jakingo zenukete.

- 'Aita', zuen baitan den **BIZI** eta **MAITASUN** ugaria da, eta zuen osasunerako eta ongizaterako behar den guztiaz hornitzen zaituzte. Zuek ordea, 'Aitagan' sinetsi beharrean 'onak eta gaitzak' ikaraturik bizi zarete egunero, eta horrelaxe izatea **sinetsi** eta **espero** duzue; horregatik 'ona eta gaitzaren' esperientziarik beldurgarrienak erakartzen dituzue bizitzara eta gorputzetara. Baldin eta soil-soilik '**Aita MAITASUNEAN**' sinetsi nahi baduzue, 'Aitak' zuentzat guztia du gordeta; hala ere, horren aurka ilundu -ITSUTU EGITEN DIRA- 'onean eta gaitzean' dituzuen sineskerak.

- Zuek gaurko eguna epaitzen duzue, eta iraganean esperimendatutakoa **espero** duzue etorkizunerako. Eta horrela atzoko gaitzak etengabe errepikatzen zaizkizue etorkizunean.

- Iraganean gertatu zenak behin eta berriro zamatzeko eta zauritzeko itzuli behar duelako sinesmen etengabea duzue; sinesmen horrek eta dituzuen oroitzapenek esklabo bihurtuta zaudete.

- **Ez duzue gorputza sendatu edo bizitza hobetu behar, sinesmenak dira sendatu beharrekoak.**

- **Esan dizuet ez dagoela ezer solidorik eguzkipean.**
 - Zuen sineskerak sendatu eta **'Aitak' zuentzat duen benetako Asmoarekin** bat egin ahal izango bazenute, zuen gorputzak eta bizitza gobernatzan dituzten sineskera okerrak disolbatuak izango lirateke lanbroa eguzkiaren aurrean bezala.
 - Zuen inguruabar bakoitza berehala itzuliko litzateke **Zeruko Asmora**, zeina sortutako guztiaren atzean dagoen.
 - Zailtasun bakoitzari -edonolako hutsegite bakoitzari-, beti amaiera ekarriko dion konponbiderik badagoela egiaztatuko zenukete, zuen beharra asetzeko saskia beteko duen zerbait badagoela beti.
 - Zer uste duzue gertatzen dela etortzen zaizkidan gaixoei eskuak jartzen dizkiedanean?
 - Gaixotasunean ari al naiz pentsatzen? Neure buruari galdetzen al diot pertsona hori sendatuko ote den? **'Aita'** lo egongo ote den beldur? Edo hain urruti izanik ez entzutearen beldur?
 - Baita zera ere! Horiexek izango balira ene pentsamendu sinesgaitzak, ez litzateke sendatuko.
 - Norbait sendatzeko hurbiltzen zaidanean, berehala irrikitan ipintzen naiz, zeren eta **'Aita'** den **'Ahalmena'** nire baitan dago, sendatzeko prest eta hori eskatuko diodan unearen zain. Eskerrak ematen ditut. **'Aitaren Nahia'** osasuna baita, eta ez gaixotasuna. Beraz, otoitz egiten dut **'Aitaren Nahia'** izan dadin gaixoarengan. **Gaixoak gorputzaren gaixotasunean duen sineskera kentzen dudun bitartean, osasunaren 'Aitaren Nahia' haren sisteman sartzen ari dela JAKINIK; itxura -gaixotasunaren itxura- 'AITA - OSASUNAREN' errealitate bihurtzen da, eta gorputza osatu egiten da berriro.**
 - **Gaixotasuna bizitasun jaitsiera bat -BIZIAREN murrizketa bat- baino ez da eragindako gorputz atalaren barrenean. Berrezar ezazu 'AITA - BIZIA' zure sistemaren egiazko Asmora eta Planera, eta sistema osoak behar den moduan funtzionatuko du.**
- Esan dizuete Jainkoak gaixotasunak, plagak, gosetea eta nazioen suntsiketa bidaltzen dituela, nazioek Jainkoaren legeak betetzen ez dituztenean. Esan dizuete zeuek zaretela Jainko haserrekorrak zigortzen zaituztenak, **egin dituzuen bekatuengatik**. Zer da zigorra –gaiztakeria ontasunaren aitzakian baino? **Nik**, Jainkoagandik gaitzik ez datorrela diotsuet. Nola liteke Jainkoa bi aldeetan egotea, -onean eta gaitzean? Zuen gogamenan baino ez da sortzen ona eta gaitza; zuen bihotzetan baino ez dituzue pentsatzen eta sentitzen. Pentsamendu eta sentimendu horiek ez dute zerikusirik zuen baitako **'Aita'** den egiazko Jainkoarekin, zeinak on guztia ekartzen baitizue, baldin eta horrela baino ez baduzue sinesten.
- Alde batetik onean eta gaitzean sinestea, eta bestetik bihotzetan duzuen ona eta gaitza dira gaixotasuna ekartzen dizuetenak.
 - Izatez, Zeruko Erresumaren barnean bizi zarete, eta Zeruko Erresuma zuen baitan dago eta **Aitaren** gobernupean zaudete; baina Jainkoaren zigorretan sinesten duzuelarik, uste duzue Tenpluko sakrifizioek baino ez zaituztetela salbatuko; gaixotasuna, pobrezia, eta miseriaren oinordekoak zaretela uste duzue; zuen gogamenen bidez sortzen dituzue nahi ez dituzuen gauza berberak.
 - Ez zaitezte buru makur egon –irrikitan eta pozik egon zaitezte eta **jakizue** ezereza esperimendatzen dutenek, Jainkoak zigortuak eta abandonatuak izatetik urrun, benetan bedeinkatuak direla bekatu egin arren.
 - Ezer ez duen gizakia aberatsa da **'Aitaren' Ahalmenean**, baldin eta soil-soilik jaramon egiten badio, **Berarengan** fidatzen bada, eta **Bere Baitan** bizi bada.
 - Zeren eta zuen urdailak aseta dauenean, gorputzek erosotasuna ezagutzen dutenean, eta gogamenak

eta bihotzak gustura daudenean, orduan ez duzue **'Aitaren'** premiazko beharrik, zuen baitan jardun dezan beharrak asetzeko. Zuek uste duzue zuen kabuz eta pentsamenduen bidez, errez asetzen dituzuela dituzuen beharrak; eta horrela, Jainkoaz hitz egiten duzuenean, soilik hitz egin dezakezue beste batzuek esan dutenaz. Zuek ez duzue inolako esperientzia zuzenik **'Jainkoarekin'**.

- Egiezue so aberatsei! Euren aberastasunetan hondoratuta, lotuta eta murgilduta daude. Goizean jaikitzen dira, eguneroko zereginenez arduratzen dira, beren baitan dagoen **'Aitaren Ahalmenez'** ezer jakin gabe. Aberastasunak handituko direlako pentsamenduak, eta 'egoa' bultzatzen duten pentsamenduak izaten dituzte, zerbitzatzen dieten pertsoneri -zamatzen dituzten- aginduak ematen dizkiete, bizitza beren kabuz bizi dute. Beraz, gaixotu egiten dira eta ezer ez duen gizakiak adina miseria esperimendatzen dute; beren bizitza mugatua, gorputzeko gogamen eta bihotzek sortzen duten pentsamendu mugatutik baino ez dutelako ateratzen. Ez dira konturatzen erdizka baino ez direla bizi; euren baitan den **'Aitarekin'**, **BIZIAREN ITURRIAREKIN**, harremanetan ez daudelako. Sekula ere ez dute 'ikusten' bizitzetan sortutako on asko ez dela euren planarena, baizik eta beren baitan ezkutuan diharduen **'Aitaren' LAN AMULTSUA**.

Erlijio buruak gustura daude euren komunitateetan aginte postuetan. Beren ase fisikoetatik haratago ez dute deusen beharrik. Jainkoaren inolako ezagutza pertsonal propiorik ez dutelako, duela 1000 urte gizon santuek esandako hitzak irakurri behar dituzte Liburu Santuetatik, eta hitzok esan nahi dutenaz zer pentsatzen duten jendeari kontatu.

-Baina, dioten guztia euren gogamen txikiek sortzen dute. Eta gogamen horiek estututa daude euren bizitzen erosotasunaren barruan, hondoratuta daude jan eta edango dutenaren eta jendea txunditzeko zer arropa jantziko dutenaren zain. Orain dela hainbeste mende, profetek esandako hitzei argia eman zien inspirazioaz ez dakite ezer. Jakin ere, ez dakite hitz horiexek ote diren une honetan entzun behar dituzuenak, garaiak aldatu egiten baitira.

-Sinetsidazue, gizon aberatsak eta erlijio buruak lurreko gauzetan dira indartsuak, eta ez dute irten nahi segurtasuna ematen dieten eta tradizio eta ohiturak dituzten gauzetatik. Edozein bide aldatzek beren sineskeren oinarriak astinduko lituzke, eta beraz euren bizitzanak. Horrela, defentsa-mentalak eraikitzen dituzte **'Aitaren' Ahalmenaren** eraginaren aurka. Gaixotu ere egiten dira, eta euren modura miseria ezagutzen dute, lurreko erosotasunik ez duzuenok bezala.

-Ez dago alderik bizitzan gutxi daukazuenon eta dena daukatenen artean; zeren eta aberatsak eta pobreak berdin gaixotzen zarete, etsaiak egiten dituzue eta bakarrik egoten zarete.

-Baina, erlijiozaleek eta aberatsek inoiz irabaztea espero lezaketenarekin alderatuz gero, itzela da zuek irabaziko zenuketen gaitasuna; esaterako, osasunean, zorientasunean, laguntasunean, eta arrakasta bizitzan aukeratutako bideetan. Eta dena beteta dagoenean, zera jakingo duzue: aukerak, trebetasuna, inspirazioa, den-dena zuen baitan den **'Aitarengandik'** zetorrela; inoiz ezingo zenituztela aipatutako gauzak egin, zuen baitan den **'Aitari'** eskatu izan ez bazeniot, **bera** baita dituzuen talentu guztiak erabiltzen laguntzen dizuena, jakitegietan janari ugari hornitu eta bizkarrean arropa jartzen dizuena, eta seme-alabentzat zorientasuna eta bizitza ona ekartzen duena. **'Aitak'** gauza horiek guztiak egingo lituzke soilik eskatu eta sinetsi egingo bazenute, -eta jakingo bazenute- eta beti gogoratuko bazenute -**'Aitaren' Izaera** dela sortzea eta gero ugaritasunez hornitzea **Bere** kreazio guztiarentzat.

- Zuen seme-alabei, behar dituzten gauzak nahita ukatzen ez dizkiezuen bezala, zuen **'Aitak'** ere inoiz ez dizue nahita ukatuko behar duzuen gutzia, bizitza zoriontsua izateko. Pobreak baldin bazarete, oraindik **'Aitaren' izaera** ulertu ez duzuelako da; oraindik ez duzue ulertu zuen beharrak betetzeko **'Aitarekin'** lan egin behar duzuela. Agertzen zaizkizuen **Zeruko aukerei** berehala eutsi behar diezue, zeuen buruari aurrera egiten laguntzeko.
- Erakutsi, ikusi eta sinestarazi ahal izango banizue kexatzen zaretenean **'Aitak'** zuen tristuraren berri izaten duela! Denboraren poderioz, zuen nahigabea alaitasun bihurtuko litzateke, baldin eta soil soilik Aitaganantz itzuliko bazinate eta so egingo bazeniotte Aita Amultsuaren lanak egiten dizuenari. Pozbidea aurkituko zenukete pentsatu ahal izango zenuten edozeretik haratago.
- Bedeinkatuak zarete gose eta egarri zaretenean, **'Aitak'** zuen beharrak ezagutzen dituelako. Gutxi barru behar horiek aseak izango dira, baldin eta kexak eteten badituzue, **'Aitari'** otoitz egiten badiozue, eta -jasoko duzuela sinetsiz- eskatzen badiozue.
- Nola sinets dezakezue jan eta ondo jantzita ibiltzeko, aurrena Tenplura joan behar dela **'Aitaren'** izakiak berberak errez- sakrifizioa eskaintzera zuen bekatuak ordaintzeko? Ez al duzue ikusten erretzen dituzuen izaki bizidunak biziaz gozatzeko sortuak izan direla, zuek biziaz gozatzeko ere sortuak izan zaiten bezala? Sortuak izan dira bedeinkazioa izateko, eta bedeinkatuak dira lurrean zuek bedeinkazioa izateko eta bedeinkatuak izateko sortuak izan zaiten bezala, horixe baita **'Aita Amultsuaren izaera'**, kreazioan agertzen den izaera, alegia.
- **Benetan sinesten dena jasotzen dena dela gogoratu ahal baduzue, ez al duzue ikusten tenpluan izaki bizidunen sakrifizioetan oinarritzen den Judutar sineskerak miseria baino ez dizuela ekartzen? Sinets ezazue zigorreen eta zigorra jasoko duzue. Sinets ezazue Jainkoarengana heltzeko bide zuzena hiltzea eta suntsiketa direlako sineskeran, eta horixe esperimentatuko duzue: erailketa eta suntsiketa.**
- Gose eta egarri baldin bazarete, zuen baitan den **'Aitari'** bizkar ematen diozuelako da. Beldurrezko pentsamenduei, estuasunei, eta etsipen sentimenduei amore ematen diezuenean, **zeuek** ari zarete sortzen zuzendu nahi dituzuen egoera berberak. Zuek zeuen buruaren aurka ari zarete gauza txar horiek egiten.
- Beraz, are bedeinkatuagoak zarete, ontasunaren gose eta egarri zaretenean, eta zuen baitan den **'Aitarekin'** harremanetan jartzeko gose eta egarri zaretenean; zeren orduan ehun aldiz aseagoak izango baitzarete, zalantzarik gabe.
- Bedeinkatuak zarete erasotzen dizuetenean eta lapurtzen dizuetenean, konfiantza perfektuarekin geldi geratzen zaretenean Jainkoa lanean ikusiko duzuelako eta askapena gertatzen dela ikusiko duzuelako.
- Bedeinkatuak zarete istiluetan nahasita zaudetenean, eta hala eta guztiz ere, gupidagarriak eta bateratzaileak izan zaitezketenean lagun hurkoarekin; bihotzean **'Aitarena'** den maitasuna daramazue eta benetan **'Aitaren'** seme-alabak zarete.
- Bedeinkatuak zarete sakonki iraindu zaituztetenean, eta hala ere barkatzeko eta bihozberak izateko gaitasuna agertzen duzuenean, justizia bilatzeari edo iraindu zaituztetenei jazartzeko bideei uko eginez. Zuzenean, 'zuen barneko - Jainko - bizia' den maitasunarekin harmonian jartzen zarete, eta modu berean bihozberatasuna jasoko duzue egoera larrietan.
- **Guztietan bedeinkatuenak bihotz garbiak dira; zeren horiek haserre, gorroto, ezinikusi, eta**

adeitasun gabezia orotik libratu baitira; -eta izatez dira munduaren aurrean ageriko Maitasuna bezalakoak. 'Jainko' deritzon Errealitatea ezagutuko dute eta Errealitatea beren baitan den 'Aita' dela jakingo dute.

- Nola lagunduko dizuet egia handi hori ikusten? Nola lagunduko dizuet Zeruetako Erresumaren, Jainkoaren Erresumaren, errealitatea ikusten?

- Ez duzue Zerura begira egon behar, ez duzuelako hor ikusiko 'Aitaren' jarduera; zeinak, argi eta garbi indartu behar baitu zuen sinesmena zalantzarik gabe. Mende hauetan zehar, hona hemen non jendeak oker handia egin duen (nork bere baitarako ametsetan eta irudimenetan begiratzearen okerra), existitzen ez den Jehova bat sortuz. Zuen gainetik Zeruetan inon ez duzue 'Aita' aurkituko. 'Aita' ez dago inongo toki berezi batean, baizik eta alde guztietan zuen inguruan eta guztiaren barnean.

- 'Aitaren' jarduera zoragarria ikus dezakezue. So egiezue zuen inguruan hazten diren gauzei; gariari, belarrari, loreei, zuhaitzei eta txoriei; eta gauza bizidun bakoitzaren baitan etengabe diharduen 'Aitaren' lan zoragarria eta misteriotsua ikusiko duzue. Hor 'Aita' kontrol perfektuan ari da. Lege eta orden perfektua, hazkundera, eta garapena dagoela ikusiko duzue; eta azkenean, gizakia, animalia zein hegazia berdin bedeinkatzen dituen uzta.

- Gogoan har ezazue gizon batek lurra goldatu ondoren, hazia nola hedatu eta estaltzen duen lurraren gainean. Tresnak hartu eta etxera joango da pozik; azkenean, euri nahikoa eginez gero, seme-alabak elikatzeko janaria izango duelako. Egun askotan lo egin eta esnatuko da laborantzan aritu gabe; baina bisitatzera itzultzen denean, lurretik galburu berdeak sortzen direla ikusiko du. Gero zurtoinak eta hostoak ikustera itzuliko da, eta geroxeago hazia osatzen ikusiko du. Eta egun batez, garaua loditu eta horitu dela, eta uzta jasotzeko prest dagoela ikusiko du. Garia miragarriro hazi da, eta hori gizonak ezin du argitu. Magia al da? Ez, 'Aitaren' lana da, Unibertso osoan zehar den **Ahalmenarena, Adimen Amultsuarena**, zeinak lana inspiratzen baitu eta lanaren bidez arnasten baitu. **UNIBERTSOKO BIZI ADIMENTSUA** den 'Aitaren' jarduera da.

- Jainkoaren Erresuman sartzen zaretenean sentsazio ona izaten da. Zoriontsu eta pozik sentitzen zarete. Igarri al dezakezue nola sentituko litzatekeen emakume bat diru kopuru handia galduko balu, eta bere buruari galdetuko balio nola emango liekeen jaten seme-alabei? Etxeko andreak negarrez etxean erratzaz garbituko luke, azken hauts mota kendu arte. Gero, bazter ilun batean ezkutaturik zilarrezko txanpon estimatua aurkitu eta berehala malkoak xurgatuko litzazkioke. Irribarreka hasiko litzateke, eta hain bizi eta alai sentituko litzateke, ezen etxetik korrika aterako bailitzateke auzokideak ospakizun-jai batera gonbidatzeko. Dena galduta zuelakoan, benetan aberatsa zela konturatuko litzateke, guztia pasatu ondoren. **Horrelaxe da Zeruetako Erresuma – Jainkoaren Erresuma aurkitzean. Malkoen eta beldurren ordeztu, -gosearen eta gaixotasunaren ordeztu- Jainkoaren Erresumako bakea, alaitasuna, ugaritasuna eta osasuna aurkitzen da. Inoiz ez da berriz esperimendatu inolako gabeziarik.**

- Perlekin salerosten zuen gizon aberats batekin ere aldera liteke Jainkoaren Erresuma. Bizitza osoan besteak baino distiratsuagoa izango zen perla berezia aurkitu nahi izan zuen; akatsik gabea eta perfektua izango zen, eta gizonak gainerako merkatari guztien inbidia sentituko zuen. Egun batez, horrelako perla bat topatu zuen, irudikatu ahal zuena baino askoz ederragoa. Zeukan guztia saldu zuen; pilatuta zeukan guztia alde batera utzi zuen perla hura erosteko, eta zoriontsua izan zen amets guztietatik haratago.

- Zer esan nahi du horrek? Zera esan nahi du: altzariz ederki hornitutako etxea, balio handiko objektuak, bizimodua, janari-edarien ugaritasuna, aurretik bizitzan baloratutako guztia -atseginez- bertan behera utzi zuela; hots, guztiari uko egin ziola. Dena preziorik gabeko altxorraren jabe izatearren, **eta hori Jainkoaren Erresuma aldera eramango duen ezagutza da, non zorientasuna gogamen-egoera bat den; kanpo-munduak bere pena eta kezka guztiekin ukitzerik ez duen gogamen-maila, alegia.**

- Jainkoaren Erresuma zuen baitan dago. **Erabat konturatzen zaretenean** 'Aitak' une oro zuen baitan diharduela, Jainkoaren Erresuman sartzen zarete. Gogamenaren egoera bat da; ageriko gauza guztien barruan eta atzean den Errealitatea, 'Aita' delako hautematea eta ulerkuntza da. Eta preziatua eta perfektua da; eta edertasuna, harmonia, osasuna, eta ugaritasunaren aurkakoak diren gauza guztiak gizakiaren gaizki-pentsatzearen kreazioak dira.

- Oso triste jartzen naiz zuek sufritzen ikustean, baina esan behar dizuedana entzuten baduzue ez duzue berriz sufritu beharrik izango. Baina ohartarazi behar dizuet Zeruetako Erresumaraino doan Bidea segitzea zaila dela. Horrek esan nahi du -lehenengo eta behin- 'egoaz' arduratu behar duzuela.

- ***Zergatik arduratu behar duzue 'egoaz'? Zuen ongizatea babestu eta sustatzeko desiratik datozelako pentsamendu, hitz eta egintza egoista guztiak.***

Seguru asko buruari galdetuko diozue:

- Zergatik arduratu behar dugu horretaz? Diozuna egia bada, zigorrik ez dagoela, Jainkoak ez duela gaitza ikusten, -orduan zergatik kezkatu beharko genuke gure jokabideaz?

- Hainbeste dago, hemen, ikasteko; ezen ez baitakit nondik hasi!

- **Azaldu dudan bezala, BIZIA 'Aitagandik' hartzen duzue, beraz pentsatzeko eta maitatzeko gaitasuna 'Aitagandik' ateratzen duzue. 'Aitaren' Adimena, Sortzailea den bezala, zuen kontzientzia ere sortzailea da. Zuen gogamenaren eta bihotzaren bidez, zeuek moldeatzen dituzue bizitzaren eta esperientzien planak.**

- Eta zer bizimodu edo bizitza mota planeatu eta moldatzen duzue gogamenean?

- Inork gogaitu edo min egiten badizue, mendekatu egiten zarete nola edo hala; inork begia kentzen badizue, etsaiarena hartu behar duzuela uste duzue. Norbait hiltzen duen pertsonari, berari ere gero heriotza eragin behar zaiola uste duzue, zigor eta sari bezala; lapurtzen dizuenak ordaindu egin beharko lukeela uste duzue, emaztea kentzen dizuena harrikatua izan beharko litzatekeela emaztearekin batera. Zuen bizitzatik pasatzen den gaitz bakoitza ordaindua izan behar dela uste duzue. Zeren eta giza izaera baita gainontzekoei min egitea, eta mendekatzen erakutsi dizuete. Zuen bizitza etengabeko gerra-eskenatokia da; gerra senar-emazteen, andreen, seme-alaben eta auzokideen artean; pertsona publikoen artean, eta nazio artean. Zuen 'Aitak' ez du gerra horren berri zuen bizitzan, baina gerra horrek zuen gogamenetan eta gorputzetan sortzen duen larritasunaren berri bai; baina ezin du ezer egin mina arintzeko -harik eta zuek zeuek gerrari bukaera eman arte. Zeuek eten behar duzue borroka bakean biziz, familietan, auzokideen, enpresarien eta pertsona publikoen artean; eta herrien artean.

- Orduan baino ezingo da aritu 'Aitaren' **LAN AMULTSUA** zuen gogamenetan, bihotzetan, gorputzetan eta bizitzetan.

- Orduan baino ezingo duzue ezagutu eta ikusi zuen baitan -eta zuentzat- 'Aita' egiten ari den lan amultsua.

- Gogoratu beti **LEGE** nagusia –**JASOTZEN DUZUEN UZTA EREINDAKOAREN ARABERAKOA DA.**

- Sasietatik ezin dira pikuak jaso, edo arantzetatik mahatsak, edo sasizatik garia bildu. Pentsatu horretan eta uler ezazue parabola hau, zuentzat oso garrantzitsua delako –gaur ez ezik datozen urte eta egun guztietan ere, baita betikotasun osoan ere.

- **Beraz, bizitza aldatu nahi baduzue, alda itzazue pentsamenduak;**

Alda itzazue pentsamendu horietatik sortzen diren hitzak;

alda itzazue pentsamendu horietatik datozen egintzak.

- **Gogamenetan duzuenak sortuko ditu zuen esperientzia guztiak; gaixotasuna, pobrezia, zoritxarra, eta etsipena.**

Gizon batek hots egin zidan: - Kontaguzu, Maisu: Nola egongo gara bakean gure auzokideekin, horiek gurekin ez direnean bakean bizi.

Irribarrez esan nion:

- Zure auzokideak ibilaldi bat egin behar duela esango balizu, ez duela bakarrik joan nahi, eta laguntzeko eskatuko balizu –zer egingo zenuke?

Gizonak barre egin zuen.

- Auzokideak nire egitekotik aldendu nahi izango banindu ez nuke pozik onartuko. Beste baten bila joateko esango nioke lanpetuta egongo nintzatekeelako.

- Eta auzokidea nola sentituko litzateke?

Gizonak keinu egin zuen sorbaldak altxatuz.

- Ez dakit.

- Eta hurrengo batean, berak zuri mesede bat egiteko beharra izango bazenu, nola erantzungo lioke zure eskaerari?

- Gizonak utzi egin zion barre egiteari. Ez zuen erantzun.

Beste batek erantzun zuen:

- Sekulakoak esango lizkioke, eta laguntza beste bati eskatzeko esango lioke.

Zera esan nion jendeari:

- Zuzen erantzun du. Eta nola sentituko litzateke bera? –lehenengoz hitz egin zuen gizona seinalatuz eta berari irribarre eginez

Emakume batek barrearen gaintik hots egin zuen.

- Topatzen dituen pertsona guztiei esango die oso auzokide egoista eta miserablea duela. Beharbada, nolabait min egin nahi izango dio.

Onarpen oihuak entzun ziren eta buruaz baietz esan nuen.

- Bai, ahaztu egingo du behin auzokideak berarekin bat edo bi mila ibiltzeko eskatu ziola, eta gizonak uko egin ziola. Ez du ikusiko **UZTA ETA EREIN LEGEA** lanean bere bizitzan. Gizonak berak jarri zuen martxan, auzokidearekin mila bat ibiltzeari uko egitean, eta orain honen jokabideak eta ekintzak jasotzen ditu. Zergatik haserretu gizonak berak sortu duenean egoera hori?

Jendeak barre egiten zuen, burua makurtuz eta elkarrekin hitz eginez. Lehen sekula ez zuten entzun horrelako ezagutzarik giza jokabideaz. Hemen irakaspen berri berria zegoen.

Nik honako hau esan nien: - Auzokidea berarekin mila bat ibiltzeko eskatzera etortzen zaizunean, edo

gusturago edo zoriontsuago sentiaraziko duen beste gauzaren bat eskatzen dizunean, lehenbizi zera pentsatzeko aholkatzen dizut: zuk beharrik izango bazenu berak zure alde zer egitea gustatuko litzaizukeen; hau da, zure eskaerari nola erantzutea gustatuko litzaizukeen.

Jende artean barbaroa entzun zen, eta esaten niena ulertzen zutela ikusi nuen.

- Beraz, auzokideak mila batean laguntzeko eskatzen badizu, egizu atseginez eta prest egon zaitez behar izanez gero bi milatan ere laguntzeko. Jendeari uko egiten diozunean, ez zara konturatzen, baina; zure gogamena eta gorputza estutu egiten dituzu; hots, egin nahi ez duzun zerbait egitera behartuta egotearen aurka babesteko, prest dituzun gogamena eta gorputza estutzen dituzu. Zuk, gogamena eta gorputza tenkatzen dituzu, eta 'Aita' ere estututa geratzen da eta ezin izaten du bere **LAN AMULTSUA** egin zure baitan, eta tentsio horretatik etortzen da gaixotasuna.

- Berriro, behar handia duen, eta hotz edo triste dagoen norbaitekin topo egin dezakezu. Baliteke berak berokia eskatzea. Ez igaro bere aurretik harro harro!

Pertsona batzuek barre egiten zuten. Bazekiten gauza bera egingo zutela.

- Ezta pentsatu ere! Emaiozu berokia, eta benetan hotz egiten badu, tunika ere bai. Joan zaitez barreka zure bidetik!

- Barreka? –sinesten ez zuen baten ahotsa entzun zen.

Nik barreka zera esan nuen:

- Bai, laguna! Barreka! Lehenengo, emateko berokia eta tunika zenituelako; eta gero ere barreka konturatzen zarelako zure baitan den 'Aitak' orain behar dituzun berokia eta tunika ustekabeen atzera emango dizkizula. Hala ere, berokia eta tunika eman ondoren, kexaka jarraitzen baduzu –orain zergatik egin dut hau? Ttuttuna izan naiz. Orain neuk izango dut hotza berak izan beharrean, eta jendeak nire lepotik barre egingo du berokia eta tunika oparitu ditudalako eta ezer gabe geratu naizelako –eta zer esango dit emazteak etxera heltzen naizenean?

Berokia eta tunika oparitu ondoren bere buruari zer gauza zentzugabea egin dion gogoratzen duen gizonaren irudiarekin gozatuz, jendeak burua makurtzen zuen barreka. Banekien, askotan beren buruari kendu ziotela beste batzuei laguntzeko –eta gero eskuzabaltasunaz damutu egin zirela.

Pixka batez itxaron nuen, eta gero zera esan nuen ozenki bakoitzaren arreta osoa lortzearren.

- Baina ez al dizuet esan, bada, EREITEN DUZUENA JASOTZEN DUZUELA? Ez al dizuet esan argi eta garbi zuen pentsamendu, hitz eta egintzek etorkizuneko inguruabarrak sortzen dituztela? Beraz, kanpotarrari berokia eta tunika eman ondoren, zer EREIN nahi duzue gero JASOTZEKO? Opariak berreskuratu ala berokirik eta tunikarik gabe egon nahi duzue luzaro? Zeren horixe gertatuko baita haserre eta nahigabeturik bidean aurrera egiten baduzue, berokia eta tunika oparitu zenituztelako. Zuen hitzek eta egintzek itxi egingo dute, harkaitza bezain gogor bilakatuko dute zuen buruari eragingo diozuen pobrezia berokia eta tunika oparitzean.

Harrez gero jendeak ez zuen, ez barre ez irribarre egiten, isil isilik zeuden, adi-adi entzuten.

- Gogoratu, lehenengo egiezue besteei, eurek zuei egitea nahi duzuen; orduan bakea eta poza egongo da zuen gogamenetan eta bihotzetan, eta 'Aitak' bere **LAN AMULTSUA** egin ahal izango du zuen gorputzetan, gogamenetan eta bihotzetan. Eman ezazue eta eman ugari; eta alaitu! behartsuei emateko opariak dituzuelako; zeren, eman ahala emandakoa berreskuratuko baituzue gehien behar duzuen moduan. Eman bihotz alaiarekin, eman konfiantzarekin; eta ematean kontuan har ezazue honako

ezagutza hau: zuen bizitzan gabezia dagoen tokian, 'Aitak' bere LAN AMULTSUA ugaritasunez egingo du zuen baitan –eta zuentzat.

- Ez egin ezer gogo txarrez, zeren bihotz astuna izaten jarraituko baituzue. Emazue dena espiritu alaiarekin, bizitzan guztiak soilik ekar diezazuela alaitasuna eta iluminazio espirituala.

Gizon batek zera komentatu zuen:

- Hori gizakiaren izaeraren aurka dago. Naturala da etorkizunaz kezkatzea. Arropa garestia da. Janaria ez da erraz topatzen.

Ozenki erantzun nion, entzule gehienek pentsatzen zutena baino ez zioelako.

- Baina ziur ez dakizu bihar bizitzan borrokan jardungo duzun. Ez dakizu bihar lanpostu bikainik izango duzun edo gerta dakizukeen beste edozein gauza zoragarri. Hori ez dakizu, baina bermatzen ari zara EZ duzula lanpostu ederrik izango edo edozein aukera zoragarri zure bizitzan – zure etorkizuneko inguruabarrak sortzen ari zarelako.

Haserretu egin zen:

- Ari al naiz? Nola ari naiz hori egiten?

- Azaldu berri dizut, bada!– Jendeari begira jarri nintzen berriz barreka. - Kontadazue tunika gorria duen hemengo gizon honek nola sortu zuen bere etorkizuna.

Isiltasuna nagusitu zen jende artean. Gero gazte batek, Markok, oihuka esan zidan:

- Badakit. Janaria eta arropa erosteko borroka egingo zuela esan du. Eta zuk esan diguzu pentsatu eta esaten duguna jasotzen dugula.

- Horrelaxe duk –esan nuen. –Mutil argia haiz hi. Ulertu egin duk. Kontuz ibili! Ez sortu heuretzat, nahi ez dituan gauzak. Eta ene dizipulua izateaz pozik egongo nauk, handi egiten haizenean gurasoek uzten badiate.

Pertsona batzuek barre egin zuten –baina beste batzuek ez. Nik esandako hitz bat bera ere ez zutela sinesten ikusi nuen.

- Inoiz ez zarete sartuko Zeruetako Erresuman estu eta larri baldin bazaudete. Gaur gaizki pasatzen ari bazarete zergatik kexazen zarete? Kexatzeak hobeto sentiaraziko al zaituzte? Zuen malkoek eguna zorientsuago bihurtuko al dizuete? Eta etorkizunaren aurrean kexatzen bazarete, etorkizuna penaz eta nekez ari zarete kargatzen, etorkizunera heldu baino lehen gainera. Zergatik egin hori? Zer onura ekarriko dizue? Larritasunak inoiz egin al dizue gauza onik? Altuago egin ahal bazinate bezala, baxua izateagatik larriturik egonda.

- Ez, ez pentsatu ez daukazuen gauzetan behin eta berriro. Pentsa ezazue **zeuenak izan daitezkeen gauzetan**, baldin eta zuen baitan den 'Aitagana' itzultzen bazarete; eta jasoko duzuela sinetsiz fede perfektuarekin eskatzen baduzue. Eta kontraesanen beldurrik gabe, jasoko duzuela esaten dizuet. Baina ongi eskatu behar da, -sinetsiz-. Ez duzue ezer jasoko eskatzean, zeuen buruari galdetzen badiozue entzun ote dizueten edo 'Aitak' –zuek nahi duzuen- emateko **gogorik izango ote duen**. Hori gizakiek duten emateko modua da, baina ez 'Aitak' duena, berak ugaritasunez ematen baitu, eta zuen beharrak asetzen baititu.

- 'Aitak' beti isurtzen ditu **Bere** dohaiak zuengana; elikagai ugariko dohaiak, janzkera, etxea eta lagunak, zuek bihotza eta gogamena garbi dituzuen bitartean, eta beti -unez uneko laguntza bezala- 'AITAGAN' etengabeko konfiantza izaten duzuen bitartean.

- Otoitz egiten baduzue eta jasotzen ez baduzue, une batez ere ez pentsa 'Aitarik' ez denik edo 'Aitak' ez dizuenik entzuten. Zeuen buruari galdetu behar diozue zer dagoen zuen baitan, 'Aitaren' LAN AMULTSUA zuengan eta zuentzat egitea oztopatzen duena.
 - Aldarera otoitz egitera bazoazte edo opari bat eskaintzera, eta bidean bat batean norbaitekin haserretu zaretela gogoratzen baduzue, eman buelta erdia eta joan zaitezte pertsona horrekin bakeak egitera. Gero, otoitzean 'Aitagana' hurbiltzean, **gogamen garbia eta hutsa izango duzue**, eta 'Aitak' entzunak izango zarete, eta 'Aitak' erantzun ahal izango dizue behar duzuen guztia eman ez zuen izatearen bake eta gelditasun barnean.
 - Oraindik sinesterik ez baduzue 'Aitak' berak sortutakoa zaintzen duela, begira zuen ingurura, landako lore distiratsuei. Ederrak dira, gero! Kontuan hartu beren edertasuna diseinatu zuen pentsamendu distiratsua! Petalobetan ikusten diren koloreak non aurkituko ote dituzue? Salomon, bere jakinduria guztiaz, ez zen gai izan hain jantzi ederrak egin ziezazkioten. Begira nola loreek erleak erakartzen dituzten, eta nola erleek hurrengo urtaroetarako haziak ekartzen laguntzen duten, zuen mundua egiteko eta zuei elikadura emateko. Zergatik ezin duzue 'Aitagan' sinetsi eta fidatu, mundua zuen inguruan -hain modu zoragarrian- planifikatua, diseinatua eta zaindua dagoenean?
 - Baina gogoratu –landare eta zuhaitz bizidun horiek, -gizakiak ez bezala-, ezin direla beren patuaz edo zoriaz kexatu; ezta beren burua gose eta biluzik ikusi ere. Eta horrela ez dute desegiten 'Aitak' beraien baitan egiten duen lana.
 - Zeuek sortzen duzue duzuen gabezia -eta gaixotasuna- sendotasunez egunez egun, falta duzuenari buruzko etengabeko kexa eta hitzekin, lagun hurkoaren aurkako erasoekin, kritikekin eta gezur beltzekin.
 - Gauza horiek guztiak esan dizkizuet gaixorik zaudetenok prestatzeko eta sendatzeko, baldin eta, bihotz bihotzez sendaketa egongo dela sinesten baduzue behintzat. Gogoratu gorputzaren gaixotasuna gogamenaren gaixotasunetik datorrela, umore txarra, ezinikusia, haserreak eta gorrotoak bezala.
 - 'Aita Maitasuna' osasunaren iturria da; beraz, 'Aita Maitasunaren' aurkako pentsamendu eta sentimendu guztiak gaixotasuna sortzen dute.
 - Zuen gaitz eta gaixotasun guztiak gogamenean hasten diren bezala –**horrelaxe ere zuen ongizatea**.
 - Zaindu auzokoa zeuen burua beste.
 - Bedeinkatu auzokoa istiluren bat sortzen denean; haren alde otoitz egizue zuekin gogorra denean, zeren eta orduan ongizatea eraikitzen jardungo duzue zuen gogamen eta pentsamenduetan, eta ongizatea izango da zuek ereindakoaren uzta. Hori ez ezik gogamena ere ekartzen arituko zarete – '**Maitasun Perfektua**' den eta zuen baitan den '**Aitarekin**' sintonian eta harmonian. **Baldintza horietan 'Aitak' bere LAN AMULTSU perfektua egin dezake zuen baitan.**
- Hitz egiteari utzi nionean jendeak gaixoak ekarri zizkidan, eta beren sinesmenaren arabera sendatu ziren.

3. GUTUNAK, Kristoren Irakaspen gehiago deskribatu eta gurutzean hiltzera eramán zuten gertakariak azalduko ditu. Dizipuluekin egindako azken afaria zehetasun hunkigarriez deskribatzen du, eta espirituz bakarrik geratu zela, -azkenera arte-, gurutziltzatua izango zenik dizipuluek sinetsi ez zutelako. Behin eta berriz, gaizki ulertua izan zen; eta hiru urteko misio lanetan gutxi irakastea lortu zuela konturatu zen, berriro. Pozik zegoen alde egiteaz.